

HIL-KANPAIAK

Film luzerako gidoia

Joanes Urkixo

2019

6gn. bertsioa

"33 EZKIL" (Miren Gorrotxategi, Elkar, 2016) eleberrian
oinarritua

Made in Highland

FADE IN:

1 EXT. GARIZMENDI. LARREAK - EGUNA

1

Pantaila beltzean basoko oihartzunak: haize leuna zuhaitzak astintzen, egurraren krakada urrun bat, txori baten txioa...

O.S.tik etorrita, tresnaren batek lurra jotzearen hots gorra entzuten dugu, isiltasun nagusia hausten duena.. Behin eta berriro errepikatzen da prozedura.

Lanean diharduena FERMIN da (57 urte), neke antzean eta izerditan. Zulo bat egiten ari da, oraindik hastapenetan badago ere.

Landatu gabeko iratze-sail bat da, landatutako soroetatik urrunago. Bizkarrean, nahiko gertu, larrearen eta basoaren arteko muga du.

Haizea zakar dabil, iratzeak astinduz. Trumoi bat lehertzen da gertu samar eta Ferminek gelditu eta gorantz so egiten du: ekaitza dakar, gain-gainean dago.

Aitzurrean bermatuta, Fermin larreetarantz so jartzen da eta kopetako izerdia kentzen du.

KARMEN (V.O.)

Ur-depositu hori noizko dugu?

2 FLASHBACK ARINA: INT. GARIZMENDI. SUKALDEA - EGUNA (GAUR)

2

KARMEN (52 urte), leihoan agertu den bera, katilua eta enparauak jaso eta harraskara doa garbitzekotan.

Gaur egungo emakume itxura du: praka bakeroak, garai batean jantzia baina orain zaharkitutako kamiseta bat, ilun kolorekoa eta bular aldean pastel koloreko irudi inprimatu bat daukana. Ilea leun dauka, sustraiak agerian eta luze samarra, goma batez ganora handirik gabe hartuta.

Gaztetan izandako xarma erabat galdu ez badu ere, begirada du deigarriena eta itxura osoaren menpe hartzen duena: hieratiko eta zorrotza, denborak begi-zuloak erantsi dizkio eta zimur txiki batzuk ere bai, adierazpena ilunduz, barne mundu ezezagun bat bilakatu balu bezala.

Fermin mahai aurrean eserita dago. Gosaria amaitu du eta, entzungor eginez, katilua baztertu, mahaian dagoen purito kaxa batetik bat hartu eta alboan dagoen metxeroaz pizten du.

KARMEN

Uda sasoian, esan zenuen.

Ferminek burua jaso ez baina hasperen egiten du, gogaituta. Puritoa katilu barrura bota, zutik jarri eta kalera irteten da andreari begiratu gabe.

Made in Highland

Karmenek ere ez dio so egiten.

FLASHBACK ARINAREN AMAIERA

3 EXT. GARIZMENDI. LARREAK - EGUNA

3

Ferminen gora begiratzeko du: zerua zeharo ilunduta dago, goiz erdia izateagatik ilusentia dela dirudi.

Ferminen begirada zorrotz dela esan liteke aitzurrari eutsi eta zulatzeari ekiten diotenean. Bi, hiru aitzurkada, gero eta indartsuago, ezpainak estutuz, ia amorrutuz.

Lehenengo tanta lodiak erortzen hasi dira aitzurrak zerbait gogorra jotzen duenean, zart ozen batez jo ere, zerbait kraskatu balitz bezala.

Aitzurrak berriro jotzen du, arreta handiagoz, eta berriro ateratzen du hotsa, orain motelago. Ferminen kopeta iluntzen du, tresna alde batera jaurtiki eta makurtu egiten da. Han kokoriko, eskuaz objektu gogorraren inguruko lurra kentzeari ekiten dio, arreta handiz.

Orduan euri tanta lodiak erortzen hasten dira eta objektua jotzean **klok** ozen bat sortzen dute, barruan hutsik balego moduan.

Euri-zaparrada hasi du. Fermin etxerantz doa, bizkar gainean aitzurra, beste eskuaz ikusterik ez dugun objektuari eutsirik.

4 INT. GARIZMENDI. SUKALDEA - EGUNA

4

Sukaldean kanpoko ilunak eragin du eta argia piztuta dago.

Fermin kaletik sartzen da. Objektua bi eskuez eutsirik dakar, hautsiko duen beldur antzean. Karmen entzimeraren aurrean dabil, patatak tortillarako moduan txikitzen, eta saihezkara begiratzeko dio, zorrotz, oinetara. Botak lokaztuta dauzka.

Jaramonik egin gabe, Fermin objektua mahai gainean jartzeraino hurbiltzen da. Gero, beti arretatsu, lokatza garbitzeari ekiten dio. Hala egin ahala, material zurixka ageriago geratzen da.

Atzerago, Karmen begira dago, jakinguraz eta mesfidantzaz.

Une horretan, tximistargi ikaragarri bat lehertzen da oso gertu eta segidan, kolpez, argia eten egiten da Garizmendin, trumoi bortitzez batek burrunba egiten duen bitartean. Biak asaldatzen dira baina tokian jarraitzen dute.

Tximistargien argi iheskorrean, sukaldea antigoalekoa dela nabari da, txapa ekonomika eta harraska zuriarekin.

Buruaren gainetik, horman zintzilaturiko egutegiak **2004 urtea** adierazten du.

Horma oso bat betetzen duen arasan telebista dago, honen alde batera botika kaxa batzuez beteriko saski txiki bat eta beste bat frutarekin, bestera bi mutiko bikiren lehen jaunartzeko argazki bat markoan jarrita(geroago NESTOR ETA AITOR direla jakingo dugu) eta mahai-erloju bat, biribil eta analogikoa, 12 ordukoa eta orratzekin.

Beste tximistargi batek Ferminen objektua argiztatzen du une batez, bi zulo biribil nabarmenduz.

Hurrengo ilunaldian, emakumea inguratu egiten da, une horretan argia itzultzen da eta gertu-gertutik burezur bati begira aurkitzen da. Garrasi batez, atzeraka doa.

Fermin berarengana itzultzen da, erpuruak burezuraren betzuloetan sartuta dauzkala. Karmen benetan ikaratuta dago.

KARMEN

Fermin! Kendu hori nire bistatik!

Fermin adi-adi begira ari zaio, ezbaian eta hausnar.

5 INT. NESTORREN ETXEA. LOGELA - EGUNA

5

Logela gizonezko ezkongabearen arketipoa da: erabilitako arropa sakabanatuta, katilu zikina, plastikoa eta fruta azalak mesanotxean... Pertsiana altxatuta dago eta handik egun euritsuako argia sartzen da.

Norbait dago lo, maindirea oinetaraino baztertuta, boxer hutsetan.

Telefono baten dei soinua hasten da. Kanta depresibo bat da. Lotia itzartu egiten da eta besoaz arakutzen du mugikor bat aurkitu arte. NESTOR dugu (32 urte), bizpahiru egunetako bizarra dauka eta, nor ari den deika ikustearren ahoz gora jartzen denean, ez dagoela oso sasoiaren erakusten du. Ezuste arina islatzen zaio erantzun orduko.

NESTOR

Aita? Zer berri, dena ondo?

FERMIN (O.S. TELEFONOZ)

Bai, bai... Aizak, Nestor, etorri beharra daukak.

NESTOR

Nora, baserrira? Gaur? Geratuta nago eta...

FERMIN (O.S. TELEFONOZ)

Gauza bat diat hiri erakusteko.

Nestorrek ez du joan nahi, protesta egitekotan dago baina ez zaio hitzik ateratzen. Nonbait, aitaren tonuagatik edo, garrantzizkoa dela nabaritu du.

NESTOR
Bale... geroago, ba...

Mugikorrari begira geratzen da, lehengo ezusteari orain kezka erantsita.

6 **EXT. BASELIZA - ILUNABARRA** 6

Baso ingurune batean dagoen baseliza. Honen aurretik auzo-bide asfaltatu bat igarotzen da.

Auto beltz, Opel Corsa edo Renault Clio motako bat, baseliza aurretik igarotzen da astiro. Leihoa jaitsita daukala eta gidaria Nestor dela ikus daiteke.

7 **EXT. GARIZMENDI. ETXAURREA - ILUNABARRA** 7

Nestorren autoa Garizmendira heltzen da. Etxaurrera sartu aurretik, egurrezko kartel batek, garai batean dotore izango ziren sakongrabatutako hizkiez, "**Garizmendi**" iragartzen du.

Auzo errepidea asfaltatu gabeko etxaurrean amaitzen da. Bi eraikuntza daude: handia, etxebizitza, eta albo batean, apur bat harago, nabe bakarreko eraikuntza txikiago bat, metalezko teilatua daukana.

Etxe nagusia baserri xume bati dagokiona da, zuriz margotua eta harriak tarteka begi bistan, eta hiru solairu ditu: behe aldean, arkudun ateak ukuilua iragartzen du. Honen ondoan, hormaren kontra, gai ezberdinezko zenbait akuilu antzeman daitezke. Eskailera eta balkoiaren bidez etxebizitzara iristen da, sukaldera. Hirugarrenak, ganbarak, teilatupeko aldea betetzen du.

Etxeko bazter batean gurdi gurpil zahar usteldu bat dago, belarrak hartuta eta nondik edo handik kendutako mugarri zahar batean bermatuta, eta ondoan bidoi herdoildu bat.

Autoa etxaurrean gelditzen da, hantxe dauden lanrober zahar baten eta harraskaren aldamenean. Harri txintzarren artean, han-hemenka, belarra hazi da.

Nestor autotik jaisten da eta etxerantz doa. Beltz eta gris antzeko kolore lisotan jantzita dago. Etxeko ateraino doazen harrizko eskaileren buruan Karmen dauka zain, amantalean eskuak lehortzen, eta berari musu pare bat ematera doa.

NESTOR
Ama, zer gertatu da? Aita ondo al da?

KARMEN
Hor dago, sukaldean.

Atzera seinalatzen du eta harantz doaz. Karmenek ez du irribarrerik egin.

8 INT. GARIZMENDI. SUKALDEA - ILUNABARRA

8

Fermin sukaldeko mahaiaren aurrean eserita dago. Honetan, botila ardoa eta edalontzi bat erdizka. Burezurra eskuetan dauka eta honi so dago, bere gogoetetan, Nestor lehenik, eta Karmen atzetik, sartzen direnean.

NESTOR

Epa, aita, zer...?

Ferminek burezurra altxatzen du, hobeto erakustearren. Nestor gehiago hurbiltzen da, harrituta.

NESTOR

Joder. Non aurkitu duzu hau?

Burezurra mahaiari jartzen du Ferminek eta edalontziari eutsi.

FERMIN

Hator.

Ardoa husten du eta zutik jartzen da. Aterantz abiatzen direnean, Karmen, bizkarrez, arrautzak irabiatzen ari da, behar lukeen baino askoz indartsuago.

9 EXT. GARIZMENDI. LARREAK - ILUNABARRA

9

Nestor eta Fermin baserriaren atze aldetik irasailerantz doaz. Nestorrek linterna bat piztuta darama.

Basoak kobazulo ilun baten antza du. Haize bolada batek zarata leuna ateratzen du landaretzan.

Iluntzen ari du eta iraulitako lurtean ez da ondo ikusten.

Nestor makurtu egiten da hobeto argitzearen. Gertutik hobeto nabari daiteke burezurak utzitako zulo biribila.

Ferminek aitzurra ekarri duela eta, zulo horretatik hasita lurra kontu handiz kentzen hasten da. Baita laster azalera atera ere hezur gehiago, eskeleto osoa itxuraz.

Nestor aitarengana bihurtzen da, beldur-nazkatuta.

NESTOR

Aita, geldi...

Fermin gelditu eta begira geratzen zaio.

NESTOR

Hau oso arraroa da.

Nestorrek mugikorrean bilatu eta argazki pare bat ateratzen du. Gero zutik jartzen da.

NESTOR
 Ertzainei deitu behar zaie.
 Beraiek etorri arte, hobe zegoen
 bezala uztea.

Ferminnek bi segundo behar ditu baina azkenean baietz egiten du buruaz.

10 INT. GARIZMENDI. SUKALDEA - GAUA

10

Sukaldera sartzerakoan, Karmen mahaia afarirako atontzen ari da eta saiheskara begiratzen die, oinetara. Nestor ate-atean gelditzen da zapatak kentzekotan. Fermin berriz besterik gabe sartzen da baina mahaiari begira gelditzen da: birentzat atonduta dago.

FERMIN
 Birentzat baino ez duzu jarri.

Karmen begira geratzen zaio, moztuta. Nestor ere, galtzerditan sartu eta gelditzen da, ezbaian. Ferminnek arasatik platera eta edalontzia atera eta mahaian ipintzen ditu.

NESTOR
 Aita, baina nik... Berandu da eta...

FERMIN
 Etxe honetatik ez haiz afaldu gabe joango.

Botila ardoa hartu eta bi edalontziak betetzen ditu. Nestorrek, amari begirada etsitu iheskor bat bidalita, Ferminnek bizkarrean pare bat kolpe eman eta esertzeko keinua egiten dio, eta berak hala egin. Karmenek, zirkinik gabe, koilara mahaian jartzen dio, gero lapikoa ekarri eta platera baratxuri zopaz betetzen dio. Bitartean, Ferminnek edalontzia husten du zurrutada batez.

NESTOR
 (atseginez usainka)
 Mmm... baratxuri zopa! Aspalditik jan gabe nago.

Karmen beste plateretara zerbitzatzen ari da.

KARMEN
 Bertak ez al dizu sekula preparatzen?

Nestor lehen koilarakada ahotara sartzekotan dago baina galderak nahigabetu egin du eta atzera egiten du.

FERMIN
 Karmen, eman bakea mutilari.

NESTOR
 (gozo ahaleginetan)
 Ama, aspalditik ez naiz
 Bertarekin bizi.

Karmen lehen koilarakada hartzen ari da eta begirada bat bidaltzen dio koilararen gainetik baina ez du ihardesten.

Isilune ezeroso bat egiten da. Nestorrek bere zopa jateari ekiten dio. Fermin berriro zurrutatzen ari da. Nestorrek koilarakada ezpainetara eramaten duenean, aurre-aurrean artez daukan burezurrean erreparatzen dute begiek:

Arasan dago, telebistaren eta Nestorren eta Aitorren argazkiaren artean. Azken honen alboan, erlojuak une honetan **9:37** markatzen ditu. Burezurrera begiratzen du berriro: hau ere berari begira dagoela dirudi eta ezeroso jartzen da.

NESTOR
 Zopa ederra dago.

Karmenek aurreneko irribarrea, arina bada ere, erakusten du.

KARMEN
 Txikitan apustua egiten zenuten
 ea zeinek arinago amaitu...
 Eztarria erreta ere, anaiak beti
 irabazi behar zuen...

Nestor zopara begira geratzen da, bi segundo behar ditu erantzuteko eta tonu samin samarra ateratzen zaio.

NESTOR
 Bai, biotatik azkarrena zen
 Aitor.

Karmenek nabaritu eta, burua makurturik, zopa jaten du isilean. Fermin elbarrituta geratu da lipar batean, edalontzia eskuan daukala, gero hustu egiten du.

Arasan, burezurak Nestorri begira jarraitzen du.

11

INT. GARIZMENDI. SUKALDEA - GAUA

11

Tarte bat geroago.

Platera hutsik dago eta Nestor atzerantz makurtzen da, beteta eta gustura. Arasa aldetik Teleberriko soinuak datoz. Aurrean, Ferminena erdizka dago, ardo botila, berriz, ia amaituta.

Karmen zutitu eta platerak batzen hasten da, harraskara joan-etorri pare bat eginez. Nestorrek ere zutitzeko keinua egiten du.

NESTOR
 Tira, nik ere mugitzen hasteko
 ordua dut.

FERMIN

Hi, ez ote haiz etxera joango?
Berandu duk eta.

Aurpegia gorrituta dauka Ferminak, ezpainak ondo busti dituen seinalea. Nestor eserita geratu da eta ez daki zer erantzun, pozik ez dago behintzat. Karmeni begiratzen dio, agian laguntza eske, baina harraskan jarraitzen du, aditu gabe.

FERMIN

Ertzainak datozenean, nahiago
diat hi arduratzea.

Zutik jarri, Nestorrengana hurbildu eta, bizkarrean pare bat kolpe emanda, atetik kanpora irteten da. Karmeni begiratzen dio Nestorrek, honek harraskan diharduela, bizkarrez.

NESTOR

Nora doa, ba?

KARMEN

Mus partidara. Horretara bai,
egunero kale egin gabe.

Tonu zakarra da eta Nestorrek ezpainak estutzen ditu. Gero, nabaritu ez duen itxurak eginez, telebistara itzultzen da.

Karmen arasara hurbiltzen da edalontzi bete ur daramala, hau han laga, saskitik pastilla kaxa bat hartu eta kapsula zuriberde bat ateratzen du.

Nestorrek amari begiratzen dio berriro, honek kapsula irentsi eta ur apur bat edaten duelarik, edalontzi gainetik begirada hieratiko bat itzultzen dion bitartean.

Azkenik, edalontzia harraskan uzten du.

KARMEN

Zure ohea prestatzera noa.

Etxe barrurantz doa.

Nestorrek telebistara begira jarraitzen du.

Erlojuaren tiki-taka soinua lehentasuna hartuz ibili da sekuentzia honaino bilakatu den bitartean.

12

FLASHBACK: EXT. HERRIKO KALEA - GAUA

12

Ahots asaldatuak, garrasi bat nondik edo handik. Lagun aldra bat biltzen ari da zerbait ikustearren.

Beraien gorputzen artetik, harago, kale-zoru ingurune bat antzeman daiteke, galtzada-harrizko edo harlauzazko atal bat, bustirik eta inondik datorren argitan distiratsu.

Zoru hezean uzkurtutako gorputz bat.

Bizpahiru zulo odoleztatu ditu eta, hilda badago ere, begi parez zabal-zabalik dauka, guri adi-adi begira eta adierazpenik gabe. Nekez atera dakioke inoren antzik, baina ile mozketaren eta arropen arabera, nahiko gaztea da.

Anbulantzia baten sirena guregana dator, gero eta ozenago.

FLASHBACK AMAIERA

13 INT. GARIZMENDI. SUKALDEA - GAUA (ORAIN) 13

Ustekabean, erlojuaren tiki-takak eta telebista soinuak presentzia hartzen dute Nestorren gogoan. Burezurra berari adi-adi begira dago.

Nestor kolpez jaiki, burezurra hartu eta kalera irteten da.

14 EXT/INT. GARIZMENDI. LARREAK/SUKALDEA - GAUA 14

Linternaren foku horixkak burezurra lagatuko hutsunea argitzen du. Nestorren eskua hara hurbiltzen da burezurri eutsirik eta hartuta bezalaxe atzera jarri baino askatu egiten du, ukitzeak gogo txarra emango balio bezala.

Une bat ere itxaron gabe zutitu eta badoa.

Sukaldeko argia itzalita dago. Karmen hango leihotik so dago.

15 INT/EXT. GARIZMENDI. LOGELA/GARIZMENDI - GAUA 15

Nestor logelara sartzen da eta goiko argia pizten du.

Ohe estu bana dago alde bakoitzera, hormaren aurka. Ezkerrekoa izara garbiz eta zabaldua, lotarako prest, eskuinekoa berriz itxita. Bien artean, pipiak jandako mesanotxe zahar bat.

Horma erdian gurutze bat dago zintzilik eta Nestor begira geratzen zaio.

Nestor mesanotxearen ostean dagoen leihora hurbiltzen da eta ireki egiten du...

kilkerrak kri-kri ari dira, ilgoraren argi horixkan zuhaitzen eta mendien siluetak nabari daitezke. Tarte batera etxe bateko argi zurbil bakarria antzematen du Nestorrek...

Hara begira geratzen da.

16

**FLASHBACK: INT/EXT. GARIZMENDI. LOGELA / GARIZMENDI
BERRI - GAUA (1988)**

16

Erabat argituta dago orain GARIZMENDI BERRI txaleta. Musika martxosoaren txunda-txunda gorraren gainetik, ahotsezko anabasa heltzen da. Auto baten motorra behar baino bortitzago pizten da.

AITOR (17-18 urte) hara begira dago leihotik. Miretsita dagoela dirudi.

AITOR

A ze juerga!

NESTOR

(Mespretxuz)

Drogekin, notejode!

Aitor, galtzontzilotan, barru alderantz bihurtzen da, haserre. Logela bi oheen arteko mesanotxeko lanparak argitzen du, eta hein batean leihotik sartzen den ilargiak ere bai.

NÉSTOR bere anaia bikia ohean sartuta dago baina eserita, adia galdurik hizketan blok batean marrazten duen bitartean. Gaur egun daukan ohe-estalki bera dauka.

AITOR

Hik zer osti dakik!

Aitorrek Nestorren begirada jarraitzen du horman esekitako gurutzeraino.

AITOR

Kagüendios!

Gurutzera hurbildu eta hartu egiten du, leihora itzultzen da eta handik kanpora jaurtitzen du zalantza izpirik erakutsi gabe. Gero leihoa itxi eta bere ohera sartzen da.

NESTOR

Kapullo!

AITOR

Itxi muturra!

Besoa luzatu eta argia itzaltzen du. Dena ilun geratzen da. Logelako isilunean, Garizmendi Berritik datorren musikaren zurrumurru gor urruna nabaritzen da.

AITOR

Ez daukak putaidearik. Han diru asko zegok.

Ilunpean, Nestor alhora jartzen da eta bizkar ematen dio.

17 **FLASHBACK JARR.: INT. GARIZMENDI. SUKALDEA - EGUNA** 17
(1988)

Biharamuna. Aitor eta Nestor sukaldean, gosaria hartzen ari dira (berdin dio zer, kafea, esnea edo kolakaoa) lausoak ondo uxatu gabe, Karmen kaletik sartzen denean, haserre itxuraz. Eskuan zerbait dakar eta mahai gainean jartzen du, ozenki:

Hormako gurutzea da.

Begira geratzen zaie, eskuak hazta eginda kontuak eskatu antzean. Bikiek jateari uzten diote, geldirik segundo batean. Ondoren, Aitorrek barre egiten du. Karmenek belarrondoko bat ematen dio kexu bat ateraraziz, minezkoa baino amorruzkoa.

Nestorrek barre egiten dio eta Karmenek berari ere belarrondokoa ematen dio.

NESTOR
(imintzioka)
Ai! Aitor izan da, joder!

Beste kaskateko bat ematen dio Karmenek, eta Nestorrek isilik hartzen du oraingoan. Karmenek gurutzea seinalatzen du.

KARMEN
Gure etxean, errespetua! (Eta Aitorri) Aditu?

Biek inora begiratzen dute amore ez ematearren. Karmenek gurutzea seinalatzen du.

KARMEN
Bere tokian nahi dut.

Badoa sukaldetik. Aitor zutik jartzen da tupustean katilua harturik.

AITOR
Txibato de los kojones!

Katilua harraskan jarri baino bota egiten du.

NESTOR
Hoa porkulo hartzera!

Aitor kalera irteten da jaramonik egin gabe. Nestorrek hortzak estutzen ditu eta eskuan zeukan katilua mahaian jartzen du, ez astiro.

FLASHBACK AMAIERA

18 **INT. GARIZMENDI SUKALDEA - EGUNA (ORAIN)** 18

Nestor orain kafea edaten ari da. Katilua, berbera ez bada, flashbackean ikusi dugunaren berdina da.

Karmen sartzen da kaletik, amantalean bilduta zenbait arrautza dakartzala. Besorik gabeko anorak batez jantzita dago, higatu eta lohi samar. Sarritan ikusiko dugu baserrian arropa honekin.

Semea keinu batez agurtzen du hozkailura doan bitartean, eta honek urruma bat itzultzen dio katilua husten duen bitartean.

Karmenek hozkailua ireki eta arrautzak han kokatzeari ekiten dio. Nestorrek berriz zutitu eta katilua harraskara darama, gero mugikorra atera eta ordua aztertzen du, ezeroso samar.

NESTOR

Aita non dabil? Ertzainei deitu
behar diet...

Karmenek sorbaldak jasotzen ditu eta berean jarraitzen du axolagabearena eginez.

KARMEN

Auskalo. Gaur goizean mozkor
itzelarekin agertu da. Nonbait
egongo da, pasatu arte.

Nestorrek amaren samintasuna nabaritzen du.

NESTOR

Zuek biok beti bezala.

Karmenek amaitu du arrautzak kokatzen eta semeari begira jartzen da.

KARMEN

Hura, fabrika itxi zutenetik,
etxean baino, tabernan gusturago.
Amen, bera bere bidetik eta ni
neuretik.

Badoa Karmen etxe barrurantz Nestorri galdetzen jarraitzeko aukerarik eman gabe. Hau amaren erantzunaz hausnartzen geratzen da, harik eta berpiztu eta kalera doan arte.

19

EXT. OILATEGIA - EGUNA

19

NESTOR (O.S.)

Aita!

Oilategiko atetik barrura kirik egiten du Nestorrek: oiloak hara-hona dabilta baina Ferminen arrastorik ez. Nahigabetuta, atzera egiten du Nestorrek eta atea ixten da.

20 EXT. GARIZMENDI. LARREAK - EGUNA 20

Nestor irasaillerantz hurbiltzen da baserri atzetik etorrita. Alde batera eta bestera begira-begira dator, aitaren bila, gero eta ezinegonago.

Irasailaren parera iritsi eta, bertan geldituta, deika egiten du baso alderantz:

NÉSTOR

Aita?

Zain dago baina alferrik. Puzka egiten du eta, buelta erdia ematerakoan, zer edo zertan erreparatzen du: handik gertu hezurretako zuloa dago eta badu zerbait arraroa.

Hara inguratzen da: lurra iraulita dago, zuloa zabaldua eta hezurren arrastorik ez dago.

Zur eta lur dago Nestor.

21 EXT/INT. GARIZMENDI. ETXAURREA/SUKALDEA - EGUNA 21

Ertzaintzaren bi auto iristen dira eta etxe aurrean gelditzen, Nestorren autoaren ondoan. Ferminen lanroberra ez dago han. Nestor, kanpoan zain zegoela eta, hara hurbiltzen da.

Lehenengo autoko kopilotuaren aldetik Miren EZPELETA (50) jaisten da, gidariaren atetik berriz KORTAZAR (30). Biak zibil jantzita daude, gibelean lotutako pistolek baino ez dute erakusten nortzuk diren.

Ezpeletak eskuan dakarren papera begiztatzen du hurbildu eta bostekoa eskaini baino lehen.

EZPELETA

Nestor Araia? Miren Ezpeleta.
(Kortazar seinalatuz) Iñigo
Kortazar.

Kortazarrek ere bostekoa ematen dio aurpegira adi-adi begiratu bitartean, nahiz eta Nestorrek nabaritu ez.

Bitartean, bigarren autotik beste bi ertzain jaitsi dira, Zientifika arloko uniforme beltzez jantzita, gero txalekoak janzteari ekin diote, besorik gabekoak eta bizkarrean **ERTZAINZA** logoarekin, beisbol kapela bana ere bai, eta segidan maletegitik bi maleta atera dituzte.

Karmen sukaldeko leihoan dago. Handik elkarrizketaren zurrumurrua baino ez da nabaritzen.

22 EXT. GARIZMENDI. LARREAK - EGUNA 22

Zuloaren albo batera, bi maletak zabalik tresneriarekin.

Plastiko horizko triangelu zenbakidunak kokatu dituzte hobiaren egitura inguratuz.

Zientifikako bi agenteek kokoriko jarrita dihardute lanean. Uniforme beltz, txaleko eta kapelez gain, orain gomazko eskularruak ere jarrita dauzkate. Bat lurra bahetzen ari da galbahe baten laguntzaz, besteak han eta hemen argazkiak ateratzen ditu kamera reflex digital batez.

Kortazar atentzioz begira ari zaie, albo batean kokoriko eta berak ere peto eta kapela berdinak jantzirik.

Ezpeleta, berdin jantzita, bizpahiru metrora dago zutik, Nestorrekin eta honen adierazpenak libreta batean hartzen.

EZPELETA

Ez duzu ezer entzun ezta inor inguruan ikusi?

NÉSTOR

(sorbaldak jasoz)
Deus ez.

EZPELETA

Eta ez dakizu nork lapur zitzakeen hezurak?

NÉSTOR

Ideiarik ez. Ni ez naiz... baliteke aitak zerbait jakitea...

KORTAZAR (O.S.)

Zer da hori?

Ezpeleta eta Nestor zulora itzultzen dira: 1 TEKNIKARIA, galbahea daukana, gelditu da eta zerbait txiki eta zurixka banatzen ari da arreta handiz, Kortazarren begiradapean.

1 TEKNIKARIA

Gizaki baten azazkala ematen du.
Aztertuko dugu.

Kortazar Nestorregana bihurtu eta zutik jartzen da.

KORTAZAR

Hezurak ondo ikusi zenituen?
Gizonezkoak ala emakumezkoak zirela iruditu zitzaizun?

EZPELETA

(harrituta)
Kortazar, nola jakingo zuen...?

NÉSTOR

(eteten)
Une bat...

Mugikorra atera eta bilatzen hasten da bezperan ateratako hezurren argazki bat ireki arte. Ertzainei erakusten die.

Hauek arretaz begiratzen dute. Ezpeletak baiezkoa egiten du. Zalantzarik izan badute honek argi uzten ditu gauzak.

EZPELETA

Argazkion kopia beharko dugu.

KORTAZAR

Zenbaki honetara bidali.
Lehenbailehen, mesedez.

Kortazarrek bisita txartel bat atera du eta Nestorri eskaintzen ari zaio. Honek hartu egiten du, Ezpeleta bezain txundituta.

23

EXT. GARIZMENDI. ETXAURREA - EGUNA

23

Ertzainak eta Nestor larreetatik datoz. Azken hau mugikorrean deika dator baina ez du erantzunik jasotzen, amore eman eta amari deitzen dio.

NESTOR

Joder... Ama!

Sukaldeko atetik agertzen da Karmen, eskuak amantalaz sikatzen.

NESTOR

Aitaren berririk bai?

Karmenek buru-keinuka erantzuten dio, ezezkoan. Nestor Kortazarrengana bihurtzen da, erabat txundituta.

Ezpeleta autora sartu da jadanik. Zientifikakoak ere badatoz euren autora, maletinak ekarriz.

KORTAZAR

Agertzen denean, deitzeko. Eta argazki horiek, mesedez.

Nestorrek baiezkoa egin, txartela atera eta han dakarren zenbakia markatzeari ekiten dio. Kortazar ezbai antzean dago.

KORTAZAR

Hi, Araia, guk elkar ezagutzen diagu, ba.

NÉSTOR

(Gogoratzen saiatuz)
A, bai? Kortazar... ez dakit...

KORTAZAR

Adelaren neba txikia.

Nestorri aurpegia aldatu zaio Adelaren izena entzutean. Pixka bat erne dago, defentsiban edo.

NESTOR

Adela...

Elkarri begira geratzen dira biak, zer beste esan ez dakitela. Ezpeletak atetik eskua aterata zaplada pare bat jotzen du autoan, deika. Kortazar bizira itzuli eta autorantz doa.

Igo, abian jarri eta buruaz agurtzen du urrundu baino lehen. Nestor orduan amarengana doa berotuta samar, hau sukaldeko atean dagoela oraindik.

NESTOR

Ama, joan beharra daukat... Eta aita, zer?

Ez du hala esan kanpai-hotsa sortzen denean, nondik edo handik. Dilin.. dalan... astiro, behe-soinuaz.

Biak soinuaren jatorrirantz so geratzen dira, Karmen auzoan halako tragediak sortzen duen artegatasun horrekin, Nestor berriz txundidura apur batez, konprenitu gabe.

Karmen arin baino arin abiatzen da. Nestorrek geldoago erreakzionatzen du, eta atzetik irteten da.

24 INT/EXT. NESTORREN AUTOA / BASELIZA INGURUA - EGUNA 24

Autoan doaz Nestor eta Karmen. Baseliza begi bistan dute eta hil-kanpaien jotzea gero eta ozenago entzuten da.

Tiro hots bortitz bat lehertzen da, kanpaien soinuari gailentzen zaiona. Biek ikara egiten dute eta elkarri begiratzen diote kezkatuta.

25 EXT. BASELIZA - EGUNA 25

Nestorren autoa baselizara iritsi eta gelditu egiten da. Atea zabalik dago eta kanpai-hotsak erritmoa galdu baina ez dira zeharo isildu.

Karmen ia erabat gelditu gabe jaisten da, eta ziztuan sartzen. Nestorrek autoa itxi eta sartzera doa, barrutik Karmenek egindako garrasi ikaragarria sortzen denean. Asaldatuta, lasterka sartzen da.

26 INT. BASELIZA - EGUNA 26

Nestor korrika sartzen da baselizako nabe bakarretik. Hondoan, aldarean pareko bazter batean, Karmen dago, kanpai sokaren aurrean belauniko, isil-isilik.

Hara hurbiltzean, amarengandik harago dagoena begi bistan agertzen zaio eta ikaraldiak geldiarazten du bertan seko:

Giza gorputz bat dago hormaren kontra etzanda, behe aldea soilik ikusten badugu ere: hankak luze-luze, beso bat zoruan, honen alboan eskopeta bat erorita, odola inguruan eta praktetan leherketa batean zipriztindu antzean.

Beste eskumutur eta besoaren inguruan kanpai soka bilduta dauka, oraindik ere hots hondarren bat egiten duena.

Erabat ikusten ez badugu ere, Fermin dela antzeman daiteke.

27 EXT/INT. BASELIZA/NESTORREN AUTOA - EGUNA 27

Tarte bat geroago.

Ingurua jendez josita dago. Ertzaintzaren auto bat dago, baita anbulantzia bat eta auto pare bat. Erizainen bat dabil aurrera eta atzera.

Ate aurrean, Ezpeleta hizketan ari da, galdezka eta notak hartzen, lur jota dirudien KARMELO parrokoarekin (65 bat urte). Hau jertse gris edo urdin batez eta praka ilunez jantzita dago, lepoan estola darama eta eskupean misal bat.

Nestorren autoaren barruan Karmen dago, adierazpenik gabe, begira baina adia galdu antzean, baselizatik Kortazar eta Nestor irteten direnean eta bertan gelditzen, berriketan.

28 FLASHBACK: EXT. BASELIZA - EGUNA (1968) 28

Karmen gazte batek (16 urte) muturreko bortitz bat ematen dio 1 NESKARI, eta honek minez garrasi egiten du, indarrak eraginda atzerantz eginez.

Karmen, suminduta, berarengana oldartzen da baina beste bi, 2 NESKA eta 3 NESKA, tartean jartzen dira eta eutsi egiten diote.

KARMEN

Bertan hilko haut!

2 NESKA

Utzion bakean, nazkante horrek!

Karmen askatzen saiatzen da eskutadaka. 2 Neskak berdin egiten du eta atzamarkada bat ematen dio. ABEL iristen da, 24 urteko gazte kankailua, eta arazorik gabe banatzen ditu biak.

ABEL

Egon geldi! Nahikoa, geldi egoteko!

Biek obeditzen dute elkarri begiratzeari utzi gabe. Bigarren planoan 1 Neska negarrez ari da, eta Abel beste biak harantz bultzatzen ditu Karmenengana arreta itzuli baino lehen.

ABEL

Zer egin dinat, Karmen?

Karmenek haiei begira-begira erantzuten du, mespretxuzko keinu batez. Orduan ezpain gainean daukan markaren erredua nabaritu eta atzamar bat hara darama.

Metro gutxitara, ESTANIS (19) baselizatik irtetean Ferminekin (orain 21), gelditu da eta, Karmenen keinua ikusirik, patrikatik musuzapi zuri bat atera eta eskaintzera hurbiltzen da. Karmenek hartu egiten du.

ESTANIS

Zer ostia esan dinате, ba?

Karmenek zapiaz ezpain gaineratik igurtzi eta odol arrastotxo batez kentzen du. Neskei so egiten die amorru biziz, hauek handik urruntzen diren bitartean, marmarka eta begirik kentzen ez diotelarik.

KARMEN

Garizmendin ez ditudala bakarrik etxeke lanak egiten... etxeke gizonentzat ere bai...

Estanisek hara begiratzen du, gero berari saiheskara ere bai. Karmenek ez dio ikusten irribarre arina, matxo alfa eta putoamoarena.

Abelek berriz, metro bat atzerago dagoelarik, bekozkoa jartzen du nahigabetuta.

Bitartean, Fermin, tarte batera gelditu da eta Estanisi eta Karmeni so dago, hurbildu gabe. Estanisek antzeman eta, burla-burlaka, hurbiltzeko keinuak egiten dizkio.

ESTANIS

E, Fermin!

Hau, ustekabean hartuta edo, aztoratu eta alde egiten du bizkor, lepo gaineratik so. Estanisek barre burlati bat dedikatzen dio.

ESTANIS

Oiloa halakoa! Zutaz gustatuta dago baina ez da esaten atrebituko.

Karmenen aurpegiak ustekabea adierazten du, lehenik Fermin urrunari eta gero irribarreka ari zaion Estanisi begiratzen dionean. Ahaztuta dago eskuan eusten duen musuzapiaz eta honetako odol arrastoaz.

FLASHBACK AMAIERA

Karmen Nestorren autoan dago oraindik. Begirada galdua du baina Nestorren jarrita daukala dirudi, eta honek atzera begiratzen dio baselizako ate paretik.

Tartetxo bat igaro da, anbulantzia jadanik joan baita, eta orain hileta-auto bat eta auto zibil bat daude.

Kortazar eta Ezpeleta baselizatik irteten dira emakumezko EPAILE eta karpeta daraman GIZON batekin. Bi ertzainak Nestorrenana datoz.

KORTAZAR

Araia, galdera batzuk egin beharko dizkiagu.

EZPELETA

Zure amari ere bai.

NESTOR

(Urduri)

Joan beharra daukat.

Kortazar eta Ezpeleta harrituta samar daude..

EZPELETA

Baserrira joan gaitezke.

Nestor harrapatuta sentitzen da. Autora begiratzen du: ama berari so dago. Ertzainengana bueltatu berriro eta zakar samar erantzuten du:

NESTOR

Ez naiz han bizi.

Badoa bizkor autorantz, bi ertzainak ustekabeen hartuta. Kortazarrek erreakzionatu eta autoraino jarraitzen dio.

KORTAZAR

Araia! Deituko diat eta ondo datorkianean pasatuko haiz, ados?

Beraren doinu bakegile zalantzazko puntu batez amaitzen da, eta azkenean buruan benetan ari zaion galdera ateratzen du:

KORTAZAR

Aizak, hire ustez honek hezurrekin zerikusirik izango ote du?

Nestorrek galderaren inplikazioa konprenitzen du, baina sorbaldak jaso eta autora igotzen da. Kortazar begira geratzen zaio eta, atzerago, Ezpeleta berari.

30 **EXT/INT. AUZO-BIDEA/GARIZMENDI BERRI/NESTORREN AUTOA - EGUNA** 30

Auzo-bidean barrena doaz autoan, biak isil-isilik.

Tarte batera gizon baten irudia ikusten da, bide ertzetik honantz datorrela. Biek berarengan erreparatzen dute. Beraren aurretik igarotzean, gizonak (ESTANIS, 55 urte) eta Karmenek elkarri begiratzen diote eta Nestorrek amarena gogorra dela, gorrotozkoa, nabaritzen du.

Atzerako ispilutik, Estanis gelditu eta autoari begira geratu dela antzeman dezake.

NESTOR
(Dudatan)
Garizmendi Berrin bizi da
oraindik?

KARMEN
Bai, tamalez.

Ez zaio Nestorri konturatu gabe geratu erantzunaren tonua eta isilik geratzen da.

Segidan, zuhaixkaz osatutako hesi baten albotik igarotzen dira. Burdinazko ate bikoitzean kartel bat ikusgai dago:

Garizmendi Berri

Atzeko etxeko atalen bat ere bai: txalet gisako eraikuntza da, duela 30 urte modernotzat jotzen zen estilokoa.

31 **EXT/INT. NESTORREN AUTOA/GARIZMENDI. ETXAURREA - EGUNA** 31

Hausnar dator Nestor, zerbait buruan bueltaka, Garizmendira iristen direnean. Etxaurrean gelditzen da eta amarengana bueltatu.

NESTOR
Ama... eta baserrira etortzen
banaiz...? Egun batzuetarako,
dena konpondu arte...

Karmenek sorbaldak uzkuertzen ditu.

NESTOR
Bakarrik ez zaitezen egon, ama...

Karmenek ez dio erantzuten eta Nestorrek ez du ekiten. Agian, erraz eman du amore, horrek lasaitu balu bezala. Harengana makurtzen da, elkarri musu eman eta Karmen autotik jaisten da.

Nestorrek agur keinua egiten dio autotik. Karmen begira geratzen da autoa maniobra egin eta bidean barrena urruntzen den bitartean.

Haize bolada bat jasotzen da eta, handik gertu esekita dauden izara batzuk astindu eta arrotzen ditu.

32 FLASHBACK: INT. GARIZMENDI. SUKALDEA - EGUNA (1971) 32

Karmen gaztea (orain 19 urte) harraskan ari da arropa garbitzen, xaboiz indartsu igurzten.

Estanis (22) inguratzen da eta, Karmen han ikusirik, irribarreka egiten dio. Honek begi ertzetik so egin dio, irribarreka bera ere, baina berean jarraitzen du.

33 FLASHBACK JARR.: INT. GARIZMENDI. GANBARA - EGUNA (1971) 33

Arnasestuak. Artaburuak zoruan barreiatuta daude, laia eta igitai zahar batzuk bazterretan, ilaunezko koltxoi bat patata zatiz estalia, aulkiak...

Armairu zahar bat eta, honen atean, ispilu lausotu bat. Arnasestuak honen atzetik datoz. Zereginaren indarrez, urrezko zoru ahulak dardarka egiten du, armairuko atea ere geldiro irekitzen hasten da bere ispiluan ganbara islatuz.

Klimaxaren ostean, arnasestuak baretzen dira. Hurrengo isilaldian, lehentasuna hartzen dute ukuilutik datorren txerrien kurrinkek.

Inpas hau, bat-batean, deiadar urrun batek urratzen du:

FERMIN (O.S.)

Estanis!

Premiazkoa dela dirudi eta premiazkoak dira, baita ere, armairuaren atzeko zaratak.

ESTANIS

Kendu, ostia!

Karmen bultzatuta sortzen da eta erortzen, biluzik. Estanis zutitu eta agertzen da, prakak ondo ipintzen.

FERMIN (O.S.)

Estanis! Estanis, agudo!

Estanis ganbarako balkoira hurbildu eta kanporantz begiratzen du.

34 FLASHBACK JARR.: EXT. GARIZMENDI. ZELAIK - EGUNA (1971) 34

Estanis lasterka dator zelaietara, alkandora praktetik erdi askatuta.

Ortuen aldean Fermin (orain 24) dago, lurrean belauniko, zerraldo dagoen AITA ez hain agurearen buruari altzoan eutsiz. Hara hurbiltzen da Estanis, larrituta.

Zenbait segundo geroago Karmen agertzen da, ilea nahasi samar dakarrela.

Organo baten doinua.

35 FLASHBACK JARR.: INT. ELIZA - EGUNA (1971) 35

Eliza jendez gainezka dago.

Korridorearen erdian hilkutxa bat dago, gainean gurutze bat daukana.

Bankuak herritarrekin beteta daude, adinekoak nagusi direlarik, atsoak mantelinaz jantzita, agureak jaka ilunez...

Aurreneko ilaran, Estanis, Fermin eta Karmen, aurpegiak grabe eta serio. Doluz jantzirik daude.

Apaiz zahar bat (70 urte inguru), pulpitutik, hilkutxa bedeinkatzen ari da isipu baten laguntzaz ura zipriztinduz.

36 FLASHBACK JARR.: EXT. GARIZMENDI INGURUAK. BIDEA - EGUNA (1971) 36

Fermin, Estanis eta Karmen bidean doaz, isili-isilik eta buru-makur, aita zena lurperatu ondoren, antza denez. Euren urratsen zaratak durundatu egiten du inguruneke isiltasunean.

Aurrerantz jarraitu ahala, nabarmendu egiten da Estanisen eta Ferminen artean hiruzpalau metroko tarte dagoela, eta Karmen lehenaren aldamenean doala.

37 FLASHBACK JARR.: INT. GARIZMENDI. LOGELA (ANAIEN LOGELA BERA) - EGUNA (1971) 37

Karmenen irudia ispilu batean islatuta. Saiheskara dago eta eskua sabelean jarrita dauka, honen neurria hartu nahi antzean. Ez da begi bistan ezer nabaritzen, ezpada beraren kezka aurpegia.

Estanis mahai aurrean eserita dago arrautza eta urdai frijituak jaten. Karmen sartzen da kanpotik saski bete tipula dakarrela. Estanisek begi ertzetik begiratzen dio, adia galdurik, jateari utzi gabe.

Neska tipulak entzimeran laga eta harengana bihurtzen da zer edo zer esateko gogoz. Ezbaian dago, urduri, buruan ari zaiona albiste ona ala txarra ote den erabaki gabe. Azkenean arnasa hartzen du berea esateko asmoz, aurrera pausoa egin...

Kaleko atea irekitzen da Karmen bide erdian eteten eta Fermin sartzen da. Herrira joateko moduan jantzirik dago. Zabalera erdiko kartazal luze bat dakar, notarioen horietako bat, mahaian utzi baino bota egiten duena, Estanisen aurrean.

Karmen bazterrean geratu da, zer egin ezean. Ferminek, gelditu gabe, txamarra erantzi eta aulki batera botatzen du, harraskara hurbildu eta eskuak garbitzeari ekiten dio, axolagabe antzean.

Estanisek, jakinguraz, kartazaleko paperak ateratzen ditu. Eskritura bat. Laster jateari utzi eta harrituta geratzen da, begiak paperean josita. Tupustean anaiarengana bihurtzen da, paperak astintzen, sinetsi ezinik.

ESTANIS

Baserri osoa hiretzat?!

Ferminek, entzun ez balio legez, eskuak sukaldeko trapuaz sikatzen ditu. Sentitzen ez duen lasaitasuna erakusteko ahaleginetan ari da.

Estanisek platera modu txarrean baztertzen du eta zutik jartzen da. Suminak hartuta, notarioko paperak Fermini burura botatzen dizkio eta kalerantz abiatzen da.

ESTANIS

Ongi, Fermin, zorionak!

FERMIN

Hi, kontuz, e?

Estanisek trapua bota eta harengana doa, mehatxuka. Estanis gelditu eta biak elkarri desafioka geratzen dira, duela batean. Karmen harago, inork nabaritzen ez duen lekukoa.

ESTANIS

(Burlaka)

Ez haserretu, joder, bizitzako helburua lortu duk.

Besoez ingurua seinalatzen du: Garizmendi, esan nahi du. Ferminek atzamar batez seinalatzen dio, erdi mehatxuka.

FERMIN

Nire etxean, nire esana.

ESTANIS

(tonua gogortuz)

Ba, porkulo hartzera bai hire
etxea, eta hire esana, eta hi
heu!

FERMIN

Kagondios, txikituko haut!

KARMEN

Mesedez, ez!

Biengana hurbildu da baina eskua sartzen ausartu ez. Ferminek Estanisi paparretik eusten dio esku batez eta beste ukabila jasotzen du muturrekoa emateko asmoz, baina airean utzi, tentsioan, askatzen ausartu gabe.

Estanis ez da defendatzen, mespretxuzko irribarrerekin jarraitzen du. Karmenen eskua ere bide erdian dago elbarrituta, begiak malkoz bustirik dituela.

ESTANIS

(Izugarrizko mespretxuaz)

Aurrera, ba! Ez haiz atrebitzen
eta! Oiloa! Behin kakatia, betiko
kakatia!

Bi eskuez bultzaka, haren eskuetatik askatzen da, buelta erdia eman eta kanpora irteten da.

Hantxe geratzen da Fermin, bi ukabilak itxita, hortzak estutuz. Karmen izu laborrian dago eta korrika segitzen dio.

KARMEN

Ez! Estanis...

39

FLASHBACK JARR.: EXT. GARIZMENDI. ETXAURREA - EGUNA
(1971)

39

Estanis badoa suak hartuta, Karmen atetik irten eta atzetik datorkio, etsi-etsian.

KARMEN

Estanis, itxaron!... (Parera
iritsita) Eraman nazazu!

Estanis bertan gelditu eta mingostasunez begiratzen dio.

ESTANIS

Eramateko, nora?

Karmen bost axola zaiola esan liteke. Besterik gabe, bizkar egin eta bideari ekiten dio. Karmen hondoratuta dago, negar isilean, ahul eta itxaropenik gabe deika.

KARMEN

Ezin gaituzu hemen utzi!

Made in Highland

Eskua sabelean jarrita dauka baina Estanisek ez du ikusten. Ferminek bai, ordea: sukalde barrutik begira dago, leihoko kristalaren ostetik.

Estanis urruntzen ari da. Trumoi bat lehertzen da zeruan.

FLASHBACK AMAIERA

40 EXT. GARIZMENDI. ETXAURREA - EGUNA (ORAIN) 40

Karmenek gora begiratzen du. Zeruak euria iragartzen du. O.S.-tik Nestorren autoaren motor zarata entzun daiteke, urrundu ahal,trumoi bat lehertzen denean.

Karmen bueltatu eta etxera abiatzen da.

41 INT. NESTORREN ETXEA. LOGELA - EGUNA 41

Hasieran (bezperan) ikusi dugun bezalaxe dago logela, ohea barne, Nestor sartzen denean. Autoko giltzak ohe gainera jaurtitzen ditu, gero bera ere hango ertzean esertzen da eta inora begira geratzen.

Ez dago bere onean, ezeroso baizik, barne gatazka batean balego bezala. Aurrean daukan armairura begira baina ikusi gabe dago... ikusten hasi arte.

Zutitu, armairua zabaldu eta arakutzen hasten da premiatsu, arropa artean, zer edo zeren bila. Bigarren arropa piloaren hondoan aurkitu eta ateratzen du:

Karpeta zahar higatu bat da, goma elastikoez ixten diren horietakoa. Atzera ohean eseri ondoren, karpeta ireki eta edukia ikuskatzen hasten da...

Marrazki-bozetoak dira, arkatzez gehienak, ikatzez bakan batzuk. Oilo batzuen dago lehenik, Garizmendiren antza duen beste bat, hormako gurutzea ere hor dago baina adar pare batekin... denak bizkor baztertzen ditu bila dabilena aurkitu arte:

Neska baten aurpegia da, hamaika aldiz, paper mota eta arkatz mota ezberdinez errepikatua. Batzuk gaintetik zirrimarratuta daude, noizbait marraztu izanaz damutu bailitzan, haserrealdi batek edo jota.

Ez du inongo poztasunik, ez oroiminik erakusten hauetako bat jasotzen duenean eta zirrimarren azpitik irribarreka ari zaion neskari so jartzen...

42 FLASHBACK: EXT. URTEGIA - EGUNA (1988-89) 42

NESTORREN POV:

Marrazkiko neska ADELA da (17-18). Neska-lagun pare batekin berriketan dabil, denak bikinitan, urtegi bateko presagainean.

AITOR (O.S.)
 A ze titiak! (konturatzen)
 Nojodas, Adela duk!

Neskak mutilen arretaz ohartzen dira eta harroxko jartzen dira.

AITOR (O.S.)
 Ostia, Nestor, hi berarekin
 gustatuta hago! Aurpegia
 marrazten diok eta gero gaez, ni
 lo nagoenean, atera eta jo eta
 fuego!

NESTOR (O.S.)
 Zer osti diok, gilipollas!

Aitorrek barre algara egiten du.

AITOR (O.S.)
 Ez daukak esateko potrorik! Nik
 erakutsiko diat.

Aitor koadroan sartzen da eta neskeganantz hurbiltzen da. Adelaren ondoan eseri eta berarekin hizketan hasten da.

Aitorrek zerbait xuxurlatzen dio Adelari belarrira eta honek barre egiten du. Biek Nestorri begiratzen diote (honen POV-arekin jarraitzen dugu) eta biek ere barre egin berriro.

Nestor gero eta amorru handiagoz begira ari zaie, zirkin egiteko ere ez dela gauza.

FLASHBACK AMAIERA

43 INT. NESTORREN ETXEA. LOGELA - EGUNA (ORAIN) 43

Nestorren eskua Adelaren marrazkia marruskatzen ari da, suminak hartuta. Begiak inon galdurik dauzka, oraindik gogoratzen eta amorrus.

Paperezko pilota jaurtiki, hurrengo marrazki mordotxo bat hartu (Adelarenak, hain zuzen) eta erditik mozteko zorian dago, dena keinu zakarrez.

Une horretan ateko txirrinak hots egiten du. Keinu erdian geratzen da Nestor. Deia errepikatzen denean, marrazkiak eta karpeta zorura bota eta irten egiten da, oldarkor, deika ari denari bereak eta bost esateko asmoz.

44 INT. NESTORREN ETXEA. SARRERA - EGUNA 44

Atea zakarki zabaltzen du eta dei egin duenari aurre egiten dio.

NESTOR
 Zer...?!

Moztuta geratzen da eskailera-buruko ilunpeak han dagoena estaltzen duelako. Orduan ate ondoko argia pizten du eta BERTA (32) agertzen da, kezkatu itxuraz.

NESTOR

Berta...

45

INT. NESTORREN ETXEA. EGONGELA - EGUNA

45

Egongelako sofán eserita daude biak. Bertak poltsa mahai txikian laga du eta Nestorren eskua hartuta dauka bereen artean, pena eta nahigabea erakutsiz.

BERTA

Ikaragarria... Oso gogorra izan da, ezta?

Aurpegia laztantzen dio irribarre batez lagunduta. Nestorrek beti legez erreakzionatzen du, beste aldera begira, inoren arretarik jasotzea gustatuko ez balitzaio bezala.

BERTA

Hortaz, baserrian zinen.

NESTOR

Bai.

BERTA

Hara, lotara geratu zinen. Ba, lehenengo aldia izango zen zeretik...

Irribarreka esan du, eta doinu amultsuarekin, baina Nestorren tentsioa nabari da. Bertak ezpainak estutzen ditu, zerbait ez zaio gustatu eta ez da isiltzen diren horietakoa.

BERTA

Baina han bakarrik utzi duzu.

NESTOR

Zer?

BERTA

Zure ama ere gaizki pasatzen ibiliko dela.

NESTOR

Beno, lasai geratu da.

BERTA

(errieta eginez)

Lasai? Nestor, zure aita hil da!

Nestorrek ez daki zer erantzun. Bertak eskua askatzen dio eta adi-adi begiratzen dio.

BERTA

Zu beti bezala, aitzakia
kakazkoekin burua ezkututzen.

Nestorrek puzka egiten du eta inora begiratzen. Haserretzen
hasi da, Berta konturatu eta tonua jaisten du.

BERTA

Bale, ni isilik, nagusitxo zara.
Gainera presaka nabil, txandan
sartzera noa eta.

Zutik jarri eta poltsa hartzen du.

BERTA

Ospitalera iritsi bezain laster,
autopsiaren berri jakiten
saiatuko naiz. Eta deitu dena
delakoarekin.

Musu bat botatzen dio eta badoa. Nestor hara begira geratzen
da, oraindik erreakziorik gabe.

46

INT. NESTORREN ETXEA. LOGELA - EGUNA

46

Ohe gainean bidaia-poltsa bat irekita dago. Alkandora bat
erortzen da barrura, indarrez.

Nestor ari da poltsatik armairura, arropa hartu eta atzera
poltsara sartzen. Dena indarka egiten du, amorru antzean edo,
hobe, egin nahi ez duen zerbait egin beharraren frustrazioak
eraginda.

Berehala amaitu du. Poltsa itxi, euskarriari eutsi egiten
dio. Segundo batez halaxe geratzen da, hasperen egin eta,
azkenean, poltsa jaso eta irten egiten da.

47

INT. GARIZMENDI. OILATEGIA - EGUNA

47

Oiloak, aske eta kakaraka, zoruan barreiatu berri diren arto
garauen inguruan pilatzen dira.

Nestorrek zaku bat garau besoetan darama eta apalategi batean
jartzen du, objektu mordo baten ondoan, hala nola uretarako
katiluak edo kartoizko arrautza-ontziak. Arropa zahar zabalez
jantzita dago, eta hautsez eta lurrez lohitutako bota pare
batez.

Bihurtu egiten da oilategiari azken begirada bat
botatzearen, gero aterantz hurbildu eta hango bazterretik
eskuare bat eta zaborretarako pala bat jasotzen ditu, hau
lastoz eta oilo-kakaz beteta dagoela. Ondoren, irten egiten
da.

Nestor etxerantz hurbiltzen da oilategi aldetik datorrela. Sarrerako balkoian Kortazar eta Ezpeleta ikusten ditu, etxetik irtenda, atetik agertzen den Karmeni agur esaten ari zaizkiola.

Ertzainak ere antzeman eta eskaileretan jaisten dira beraren bila. Nestor hauen oinean gelditzen da.

KORTAZAR

Ah, Araia, azkenean agertzen haiz. Galdera pare bat baino ez.

Ezpeletari so egiten dio, hau atzetik jaitsi eta eskuan dakarren libreta aztertzen ari delarik.

EZPELETA

Araia jauna, atzo, aitak hezurren kontuagatik dei egin zizunean, zer inpresio eman zizun?

NÉSTOR

(gogoratu behar du)
Harrituta zegoen, logikoa denez.
Ez zekien zer egin.

EZPELETA

Ez zenion ezer arrarorik nabaritu? Urduri edo kezkatuta zegoen, deprimituta beharbada?

NÉSTOR

Zergatik egon behar zuen deprimituta?

Biei begiratzen die ulertu gabe, eta Kortazarrengan gelditzen da. Hau ezeroso dago.

KORTAZAR

Orduan, hire ustez ez zian burua hiltzeko arrazoirik?

Nestorrek kopeta iluna jartzen du.

NÉSTOR

Zer koño diok? Aitak?

EZPELETA

Autopsiaren zain gaude, baina printzipioz bere burua hil zuela uste dugu.

NESTOR

Benetan? Hezur horiek desagertu, egun berean aita tiro batez hil, eta suizidioa? Beste inork hil duen ikertu gabe?

(MORE)

NESTOR (CONT'D)

Kortazar, joder, eskuak garbitu
 behar dituzue guardia zibilak
 nire anaiarekin bezala?

Kortazar artega dago, Ezpeleta berriz irainduta.

EZPELETA

Araia jauna, autopsiak zerbait
 arraroa aurkitzen badu, zaude
 ziur ikertu egingo dugula.

KORTAZAR

(tupustean)

Beno, oraingoz nahikoa zegok. Dei
 egingo diagu.

Keinu batez agurtu eta autorantz abiatzen da. Ezpeletak,
 berriz, zorrotz samar begiratzen dio Nestorri bide bera hartu
 baino lehen. Nestor hantxe geratzen da, begira, kopeta
 zimurtuta.

Nestor eta Ezpeleta autora igo dira eta segidan abiatzen
 dira.

Azkenean, Nestor eskaileretara bihurtu igotzekotan, eta
 Karmenekin topatzen da, atetik kanpora agertzen, berari
 begira dagoela eta ez ertzainei.

Autoren motorraren hotsa O.S.-en urruntzen den bitartean,
 Karmenen begirada Nestorren oinetara jaisten da, edo hala
 iruditzen zaio honi. Berak ere berdin egin eta botak lohituta
 aurkitzen ditu. Murrak okertuz, lehen eskailera-mailaren
 kontra astintzeari ekiten dio.

49

**FLASHBACK: INT/EXT. LANROBERRA/GARIZMENDI BERRI -
 EGUNA (1988-89)**

49

Laurak lanroberrean doaz, Fermin (41-42) gidari, Karmen
 (36-37) aldamenean, seme bikiak (16-17) atze aldean.
 Herrirantz doaz, Garizmendi Berri parera inguratzen.

Txaletaren inguruko hesia oraindik jarri gabe dago eta barru
 alde osoa ikus daiteke:

Antza, igerilekua egiten ari dira, oratzaile bat indarrean
 baitabil zaratatsu eta haren inguruan Estanis eta langile
 pare bat. Hauetako bat adreilu bete orgatila bat bultzaka
 doa.

Estanis, arropa zikinaz eta laneko eskularruz, oratzeko
 makinara areazko palakadak botatzen ari da. Bi doberman
 etzanda daude nahiko gertu. Nagusiak begirada altxatzen du
 autoa igarotzean eta agur adeitsu burlatia egiten die.

Autoan, Karmenek bizkar egiten dio, amorratuta. Atzean, Aitor
 begira-begira geratzen da, Nestorrek berriz beste aldera so
 egiten du.

Made in Highland

KARMEN

Zergatik itzuli beharko zuen
horrek auzora!

Ferminek ez du erantzuten, sorbaldak jasotzen ditu. Karmenek ez du nahikoa, haserre dago.

KARMEN

Drogen kontuan sartuta omen
dabil, ba. Permitituko al diozu?

Ferminek harrituta begiratzen dio.

FERMIN

Nork, nik?

KARMEN

Bai, zeuk. Anaia duzu.

FERMIN

Zer egin dezaket nik, horrek
dituen lagun horiekin?

KARMEN

(Frustrazioaz)

Hara, zer egin dezakeen!
Prakanasaia halakoa! Beti
anaiaren beldur izan zara eta!

Ferminek ez du erantzuten, ezpainak estutu baino ez du egiten, eta eskuak bolantearen inguruan hain gogor eutsi non zuritu egiten zaizkion.

Atze aldean, Aitor adia galdurik doa, leihotik begira. Nestor burumakur doa, zangoetan daukan koadernoari begira. Arkatza eskuan dauka baina geldidirik dago.

Lanroberrak aurrera jarraitzen du.

FLASHBACK AMAIERA

50

INT. ERTZAINEN AUTOA/AUZO INGURUA - EGUNA (ORAIN)

50

Kortazar gidari doa. Bere aldamenean, Ezpeletak ezin du haserrealdia ezkutatu, hari begiratzen dio azalpenen baten zain edo, baina nekatu egiten da.

EZPELETA

Nahikoa, Kortazar. Zer gertatu
zitzaion Araiaren anaiari?

Kortazarrek bere tartea hartzen du erantzun orduko, kosta egiten zaio.

KORTAZAR

Aitor anaia bikia zuen. Oso
istorio traumatikoa...

EZPELETA
 (onartu gabe)
 Eta horregatik utzi diozu horrela
 hitz egiten?

KORTAZAR
 Miren, zaude lasai... Familia
 horrek asko sufritu du.

EZPELETA
 Ez da bakarra!

Intentzioz esan du eta kideari aurpegira begira. Honek nabaritu eta aurrera begira jarraitzen du, erantzun gabe.

Une horretan Garizmendi Berritik igarotzen ari dira. Kortazar burdinazko ate parean gelditzen da eta seinalatzen du.

KORTAZAR
 Estanis Araia. Kontu handiko tipo
 bat.

Ezpeletak hara begiratu, gero berari, jakinguraz. Kortazar, antza, ez dago oso eroso gai honekin.

KORTAZAR
 Droga guztia hemendik pasatzen
 zen. Aitor berarekin lanera
 etorri zen eta hilik amaitu.

Ezpeletak gehiago jakin nahi du.

KORTAZAR
 Gertatu den guztiak toki honekin
 zerikusia du.

Abian jarraitzen du. Ezpeletak gehiago galdetuko luke baina kidearen isiltasuna errespetatzen du.

51 **EXT. KANPOSANTUA. FERMINEN HILOBIA - EGUNA**

51

Hilobi bat zabalik dago lurrean.

Zuloaren alboan hilkutxa bat, eta azpitik, alderik alde zeharka eta hilobiaren gainetik beste alderaino, bi soka lodi. Hilobiaren buruan harlauza bat eraikita dago inongo inskripziorik gabe. Lore-koroa bat harlauzaren kontra bermatuta.

Ondoan, lanerako buzoz jantzirik, burumakur eta isil-isilik, Abel dago (orain 55 urte), gaztetan bezain mozkotea, berdin jantziriko beste hiru gizonekin.

Hilobiaren aurreko kalean lagun gutxi batzuk bildurik daude: Karmen eta Nestor, doluz jantzita, Berta ere hor dago, baita gizonezko pare bat (gerora jakingo dugunez KOJUA eta JUANITO dira, Ferminen eta Abelen mus partidetakoa kideak).

Kortazar eta Ezpeleta ere hor daude, apur bat baztertuago, bertaratuen berri hartzen.

Hilobiaren aurrean, KARMELO, ofiziorako kasulla jarrita, isiputarekin eta misaletik irakurtzen:

KARMELO

... Jainko ahalguztidunari gure anaia zenaren arima gomendatzen diogu eta bere gorputza lurrari eman. Lurra lurrari, hausterreak hausterreei, hautsa hautsari, bizitza eternorako pizkundearen itxaropen osoan Jesukristo gure jauna lagun.

Liburua itxi eta bildutakoengana itzultzen da.

KARMELO

Jauna zuekin.

DENAK

Eta zure izpirituarekin.

Karmelo Karmenengana hurbildu da. Hau serio dago, baina ez inondik inora lur jota, On Jenarok eskua bere bi eskuetan hartzen duenean.

KARMELO

Doluminak, Karmen...

Honek baiezko arina egiten du erantzun gisa. Apaizak Nestorri bostekoa emateko keinua egiten du, honen bekaizgo adierazpena ikusirik damutu eta buru-keinu arin batez konformatzen da.

Abel ere Karmenengana etorri da eta Karmelo baztertu arte zain egon da hurbiltzeko. Lotsatuta dagoela dirudi.

ABEL

Lasai, Karmen. Laster hezurretan geratuko da. (Alaiago) Hezurren bakea izango du.

KARMEN

Aurrera, ba, egin zeure lana.

Amultsuki baina aginte doinu batez mintzatu da. Abel, aztoratuta, baiezkoa egin eta hilobira bueltatzen da.

Lore-korua kutxa gainean jartzen du Abelek. Beste hiru langileek, zeinek bere soka muturrari eusten dio. Bera ere bereari eustearren makurtzen da eta tenk egiten du.

Hala egitean burua apur bat altxatzen du eta orduantxe antzematen du, bizpahiru kale tartera, erdi ezkutuan dagoen norbait:

Estanis.

Hura ikustean, Abeli begirada iluntzen zaio.

ABEL
(Berekiko)
Kabroia...

Estanisek ez du Abelen arreta nabaritu, berea beste nonbait jarrita dagoelako, Karmenengan, alegia**.**

52

**FLASHBACK: INT. GARIZMENDI BERRI. EGONGELA - GAUA
(1989)**

52

Egongela estilo moderno-horterako altzariz hornituta dago. Mahai baxu batean zenbait botila daude (whiskia, gina, tonikak), zigarro-kutxatila bat ere bai.

Erdi-erdian, poker-mahai bat: kartak, edalontziak, puruak eta zigarroak, diru mordoa ere sakabanatuta. Inguruan, lau jokalaria eta kanporago ikusle bat.

Jokalaria bat tipo gazte, GIHARTSU eta isila da. Bestea, BIBOTEDUN bat (40), harroa eta etxeke jauna bailitzan jokatzen duena. Biak alkandora hutsetan daude, beraien jakak sofa gainean daude eta baten azpitik pistola baten zorroa agertzen da.

Hirugarrena Fermin da (orain 42) eta zurbilduta dago, azken jokaldian diru guztia galdu duelako. Estanisek (40) irabazi diola dirudi, dirua bereganantz biltzen ari baita pozarren.

Ikusle gisa Abel (orain 45) dago, kanporago eserita, eskuan daukan trago luze batetik noizean behin edaten duelarik, txolinduta samar.

Jokalariak ere sano mozkortuta daude, baten bat kolokatuta ere bai. Bibotedunak kartak mahaira botatzen ditu eta atzerantz makurtzen da, ez oso pozik.

BIBOTEDUNA
(Estanisi)
¡Joder, menuda folla tienes,
cabrón!

Estanisek barreka egin eta sorbaldak jasotzen ditu.

ESTANIS
(Ferminengatik, burlaka)
Me conozco a este como si le
hubiera parido.

Ferminek isilik dirau, begiak dirutik kendu gabe, edalontzia hartu eta hustu egiten du. Lausotuta dago, edanda. Ezpainak bustitzen ditu eta Estanisi begiratzen dio.

FERMIN
Utzidak apur bat.

ESTANIS
(ulertu gabe)
Apur bat, zer?

FERMIN
Dirua.

Estanisek barre algaraka egiten du. Abel zutik jartzen da malguki bat bezala, kezkatu.

ESTANIS
Jokoan jarraitzeko? Hi jota hago!
Hoa porkulo hartzera!

Ferminek ez du erantzuten, ez amore eman ere. Bibotedunak Gihartsuari, moskeatuta:

BIBOTEDUNA
¿Tú ves a estos maricones? Este nos chulea la pasta, luego se ponen a tocar los cojones con el dialecto...

ESTANIS
Me voy a quejar yo de la pasta que tú me levantas por no hacer nada, cabrón.

BIBOTEDUNA
¡Manda huevos! ¡Hala, calla y reparte de una puta vez!

Imintzioka esan du azkena, baina Estanisen arreta Ferminengan jarrita dago, kartak hartu eta adia galdurik nahasten dituen bitartean. Orduan, betiko irribarre kabroia marrazten zaio.

ESTANIS
Eta, zenbat nahi duk?

Abelek zutik jarraitzen du, kezkatuta. Bi anaiak ez dira konturatu ere egiten, elkarri adi-adi begira jarraitzen baitute.

53

FLASHBACK JARR.: INT. GARIZMENDI BERRI. LOGELA - GAUA

53

Esku bat paper batean sinatzen. Eskua Ferminena da eta sinadura nahiko traketsa, ozta-ozta oinarritzko eskola egin duen batena, "**Fermin Araya**" adierazten du.

Paperak testu bat idatzita dauka, beste esku batez itxuraz, baina ezin da argi irakurri.

Estanis begira egon da eta, Fermin artezten denean, bera makurtzen da sinatzera.

54 FLASHBACK JARR.: INT. EGONGELA - GAUA

54

Muntaia sekuentzia

Plano labur eta moztutan zehar, poker partida baten eboluzioa ikusten dugu:

-Estanis kartak banatzen...

-Jokalariak dirua ipintzen mahai erdian...

-Estanisek bikote bikoitza erakusten du mahaian, gero dirua batzeari ekiten dio irribarreka. Biboteduna karta jaurtitzen erdira. Ferminen begiak zabal-zabalik ditu, gero edalontzia hartu eta trago bat hartzen du...

-Esku bat bestearen atzetik apustua jartzen...

-Ferminen eskua apusturako dirua banatzen dagoeneko urrituta dagoen bere pilotik...

-Esku bat dirua ekartzen. Oraingoan Gihartsuarena izan daiteke...

-Fermin izerditan blai. Begirada galdua du, ezbaian dago apustura joan, ez joan. Estanisi so egiten dio, honen irribarrea desafioka ari zaio. Beste aldetik, Abelen begiek ezetz erregutzen diote baina ez da konturatzen. Zalantza labur bat... dirua banatu eta erdira botatzen du...

-Estanisek kartak agerira jaurtitzen ditu. Bi erdaldunen etsipenezko keinuak. Dirua batzen ari da, berea da pilorik handiena eta besteak urrituta daude, Ferminenean 5.000 pezeta baino ez da geratzen.

Ferminen begiak lausotuta daude, hondoratuta dago eta mozkortuta. Bat-batean, edalontzia hartu, kolpez hustu eta zutik jartzen da. Inori begiratu gabe irteten da, Estanisek begi maleziatsuz segitzen dio. Abelek ere, bere edalontzia laga eta bide bera hartzen du, atiaz harago desagertu arte.

FLASHBACK AMAIERA

55 EXT. KANPOSANTUA. FERMINEN HILOBIA / AITORREN HILOBIA - EGUNA (ORAIN)

55

Abelek eta beste hirurek dagoeneko jaitsi dute hilkutxa, orain sokak berreskuratzen ari dira.

Jendea sakabanatzen hasi da, geldiro. Azkenik, Karmen, Nestor eta Berta ere mugitzen dira. Haizea harrotu da, boladaka jotzen duen hego tipikoa da, bat-batean baretzen dena.

Ez dira 10 metro ibili eta Karmen berriro gelditzen da, beste hilobi baten aurrean. Hango harlauzan inskripzioak honelaxe dio:

Aitor Araia / 1972-1990 / Goian bego

eta honen azpian Aitorren argazkia. Hirurak han gelditzen dira, isili-isilik, bizpahiru segundotan. Orduan Karmen hurbildu eta muin ematen dio argazkiari, eskuaren bidez.

Alde egitekotan bueltatzen denean, Estanisekin begiz begi topatzen da, hau ez baita bere tokitik mugitu. Biak hantxe geratzen dira, elkarri hozki begira.

56 FLASHBACK: INT. GARIZMENDI. LOGELA - EGUNA (1990) 56

Karmenen begi baten DETAILA.

Ispilu aurrean dago eta begi-zulorik baduen aztertzen ari da. Oraindik gaztea da eta ez du askorik baina bera baiezkoan dago. Koadrotik kanpoko krema batetik atzamar puntaz hartu eta begi azpian ipintzen hasten da...

Ilea solte darama eta bere betiko estiloan jantzita dago: gorri lisoko kamiseta bat, praka bakeroak. Oraingoan urrezko katea txiki bat erantsi du.

Krema ematen amaitu du eta ispilutik aldentzen da. Ohe gainetik lore estanpatuzko jaka bat hartu eta badoa.

57 FLASHBACK JARR.: INT. GARIZMENDI. LOGELA - EGUNA (1990) 57

Seme bikien logelara sartzen da isilka. Biak lo zorroan daude oraindik. Ernegu keinua ateratzen zaio: horman, Jesukristoren gurutzea buruz behera zintzilik dago.

Burua ezezka astinduz, arretatsu hurbiltzen da gurutzea ondo kokatzeko asmotan. Ohean buelta eman duen semeak bidean geldiarazten du. Berriro pentsatzen du. Irten egiten da.

58 FLASHBACK JARR.: EXT. GARIZMENDI BERRI - EGUNA (1990) 58

Karmen patiora sartzen da burdinazko atea automatikoki zabaldu ahala baina ezbaian geratzen da txakurrek zaunka mehatxagarriak entzutean.

Estanis agertu da etxe barrutik, txakurrak isilarazi ditu eta hantxe etzanda laga ditu, Karmenengana hurbildu aurretik. Lagunkin agertzen da bere betiko ironia galdu gabe.

ESTANIS

Karmen, hau ezustea!

KARMEN

Ez nator kortesiazko bisitan.

ESTANIS
(Serio eta jakinguraz)
Hortaz?

KARMEN
Badakizu.

Estanis ezustean hartzen duela dirudi baina segidan egiten da egoeraren jabe.

ESTANIS
A ze garaiak, Garizmendiko
ganbarakoak, e?

Asko hurbildu da Karmenengana. Ahotsa jaitsiz modu sentsualagoan, ezpainak ia belarria ukitu arte. Karmeni kili-kili egiten dio arnasak baina erreakziorik ez erakusteko ahalegintzen da.

ESTANIS
Gogoan ditut oraindik titi-punta
hauek nire atzamarren artean
tinko gogortzen...

Bat-batean gelditu eta, adi-adi begira, tonu sentsuala baztertu eta gogortu egiten du.

ESTANIS
Baina orain ez zara garai
batekoa... aluan ile urdinak
baietz!

KARMEN
Kabroia!

Atzera pauso egiten du erreakzioz baina han geratzen da, irainduta sentitu, bere asmoekin jarraitu. Azkenik hasperen egiten du, amore emanez.

KARMEN
Estanis, ez daukagu dirurik.

Estanis negozio-gizonaren jarrera hartzen du.

ESTANIS
Zer eskaintzen didazu?

Karmenek aukera bat ikusten du hor. Kemena biltzen du edozertarako prest eta, ez ezbairik gabe:

KARMEN
Zuk zer nahi duzu?

ESTANIS
Neurea nahi dut. Baserria ez
bada, semeak.

Karmen zur eta lur dago, eta ulermena etorri ahala, beldurra ere bai.

KARMEN

Semeak...? Ez! Daukadan bakarra
dira...

Estanisen aurpegian erreakzio arin bat. Pentsatzen ari da,
baina hotz jarraitzen du.

ESTANIS

Egia. (Etena) Bidali bat.

Karmenen begiak ezintasunezko malcoaz betetzen dira.

KARMEN

Ez... arren...

ESTANIS

(Gupidagabe)

Aitor.

Karmenek buruaz ezezka jarraitzen du baina malcoek ez diote
hitzik esaten uzten tarte batean.

ESTANIS

Ez zaizu hain urrun joango, ba.

Karmenek malcoen artetik begiratzen dio, sinesgogor. Ez ote?

KARMEN

Zergatik Aitor?

Estanisek bere irribarre burlatia erakusten du berriro.

ESTANIS

Bestea mantsoa da. Zure
senarraren antza atera du.

Karmenek negar egiteari uzten dio, gorrotoa eta mespretxua
islatzen ditu begietan. Orduan, aurrera pausoa egin eta tu
egiten dio aurpegira. Buelta erdia eman eta badoa.

Estanisek tua garbitzen du, berarengan begirada ezin hotzago
bat josita.

FLASHBACK AMAIERA

59

EXT. KANPOSANTUA. APARKALEKUA - EGUNA (ORAIN)

59

Hiletetara etorri direnak urruntzen ari dira kanposantutik,
oinez edo autoz, Karmen, Berta eta Nestor irteten direnean.
Aurrerago, Kortazar eta Ezpeleta auto ofizialera iristen ari
dira.

Nestorrek zerbait diotso amari eta banatu egiten dira:
Nestorrek Berta laguntzen du honen autoraino, Karmenek berriz
gertuago dagoen lanroberrerrantz.

Haize hegoak jarraitzen du, bolada laburretan etorri eta
joan, ileak eta arropak apur bat astintzen.

Made in Highland

Berta isil-isilik doa, Nestorri begiratu gabe. Albait lasterren urrundu nahi du.

Estanis urruntzen ari da aparkalekuaren paretik. Gertu dagoen Karmen ikusi badu, ez du erakutsi. Emakumea berriz berari so gelditu da.

Nestor eta Berta autoaren parera heltzen dira, gizonak zerbait esan nahi du eta artega dago.

NESTOR

Tira, Berta... hemengoak konpondu
eta etxera itzultzen naizenean,
dei egingo dizut...

Bertak poltsikotik atera duen giltzaz autoko atea deslokatzen du baina berriro berarengana bihurtzen da.

BERTA

Eta amarekin zer egingo duzu?
Bakarrik bizitzen geratuko da?

Nestorrek ez du erantzunik, agerian dago ez duela horretaz pentsatu. Bertak kopeta iluna jartzen du eta autora igotzera doa, baina Karmenen ahotsak eten egiten ditu.

KARMEN

Zeuk hil duzu Fermin! Azkenean
mendekua hartu diozu!

Tarte batera, Karmenek Estanisen pareta hartu du eta besotik eusten ari zaio, gelditzera behartuz. Nestor harantz doa korrika.

Hego haizea ere une horretan berpizten dela dirudi, bolada bortitz batean lurreko hostoak eta lohikeriak harrotzen baititu eta arropak eragiten.

ESTANIS

(besoa tiraka)
Ez esan astakeriarik! Askatu,
joder!

KARMEN

Hurrengoa neu izango naiz, ezta?
Hurrengoa, neu!

ESTANIS

Nazkantea halakoa! Burutik eginda
zaude, psikiatrikoan behar
zenuke!

Askatzen da baina ez du Nestorren gan erreparatzen. Hau suminak hartuta iristen da eta, kontrola zeharo galduta, ukabilkada bat askatzen dio.

Estanisek bizpahiru pauso atzera egiten ditu kolpearen eraginez, eta eskua masailera darama, minez.

ESTANIS

Hi, zer...? Kagüendios!

Nestor suminduta dago, ukabilak prest, baina, harengana pauso bat eman orduko, Kortazar eta Ezpeleta iristen dira. Lehenak Nestor trabatzen du eta atzerantz eramaten du.

KORTAZAR

Araia, egon... Araia, nahikoa,
joder... Benga, hi, lasai hadi...

Nestor isilik dago, arnasestuka, begiak gorri eta Estanisengan josita, ukabilak estutuz. Karmenek ez du zirkinik egin ezta lehengo amorruren arrastorik ere erakusten.

Ezpeletak Estanis zutitzen lagundu du eta honek, Nestorren kolpea jaso duen ezpaina eskugainaz igurtzirik, ama-semeei begiratzen die mespretxuz.

ESTANIS

Nolako egurra, halako ezpala.

Badoa. Karmenek, akaso, lehengo amorruren isla arin bat erakusten du. Kortazarrek azken bultzada bat ematen dio Nestorri eta honek, azkenean, jarrera lasaitu eta buelta ematen du.

Tarte batera, Berta denaren lekukoa izan da bere autoko atea zabalduari eutsirik. Ezezko arin bat egiten du buruaz, bere nahigabea adieraziz, autora sartu baino lehen.

60 INT. NESTORREN AUTOA - EGUNA

60

Badoaz Nestor eta Karmen, biak isil-isilik. Hau aurrera begira doa baina lehenak so egiten dio aldizka begi ertzetik, zer edo zeri bueltaka buruan. Horrela, zirt edo zart egin arte.

NESTOR

Ama... egia al da? Estanisi esan
dionuna... hiltzeko mehatxuena.

Karmenek begirada itzultzen dio astiro. Istant batez bada ere, Nestor artegatu eta arreta bolantera itzultzen du.

61 INT. POLIZIA-ETXEA. ZIENTIFIKO SAILA - EGUNA

61

Ordenagailu-monitore handi batek itxuraz azazkala izan daitekeen baten irudi handitua erakusten du.

1 Teknikaria (22. Sek.) saga maneiitzen ari da menuan, irudia handiagotzearren.

Txandaka ikusiko ditugu pantailako irudia eta Teknikariarena, albo batera eta bestera dituen Kortazar eta Ezpeletari azalpenak ematen dizkien heinean.

EZPELETA

Hortaz, giza azazkala da?

1. TEKNIKARIA

(baiezkoa eginez)

Emakumezkoarena gainera, lodiera eta itxura estuagoa ikusita. Gainera, azazkal-laka hondar bat zeukan, arrosa kolorekoa...

EZPELETA

Adina?

1. TEKNIKARIA

Hamaseitik berrogeita hamarrera bitartean.

Sorbaldak jasotzen ditu gehiago zehaztu ezinagatik. Kortazarrek puzka egiten du, desengainuz. Teknikariak, orduan, berriro maneiitzen du saga azazkala gehiago handitu arte:

Azazkalaren ertza koskatuta dago.

1. TEKNIKARIA

Ea honek baliokoa duzuen...
Ikusten ertz koskatua? Azazkalak jaten zituen.

Kortazarrek so egiten dio, erabat zirraratuta. Teknikariak nabaritu ez eta atzerantz makurtzen da, azalpena amaituta.

1. TEKNIKARIAK

Tamalez, hori da dena. Kosta egingo zaizue biktima identifikatzea.

KORTAZAR

DNA.

1. TEKNIKARIA

Ba, hasi ahal zarete desagerpen txostenak ikuskatzen. Senideren batekin konparatu beharko duzue.

KORTAZAR

Nirekin.

62 **FLASHBACK: EXT. HERRIKO KALEA - GAUA**

62

Sekuentzia hau 12garrenaren berdina da

Ahots asaldatuak, garrasi bat nondik edo handik. Lagun aldra bat biltzen ari da zerbait ikustearren.

Beraien gorputzen artetik, harago, kale-zoru ingurune bat antzeman daiteke, galtzada-harrizko edo harlauzazko atal bat, bustirik eta inondik datorren argitan distiratsu.

Zoru hezean uzurtutako gorputz bat.

Bizpahiru zulo odoleztatu ditu eta, hilda badago ere, begi pare zabal-zabalik dauka, guri adi-adi begira eta adierazpenik gabe. Nekez atera dakioke inoren antzik, baina ile mozketaren eta arropen arabera, nahiko gaztea da.

Anbulantzia baten sirena guregana dator, gero eta ozenago.

FLASHBACK AMAIERA

63 **INT/EXT. GARIZMENDI. LOGELA/ETXAURREA - EGUNA (ORAIN)**

63

Nestor ohearen ertzean eserita dago, burumakur. Erdi itxita dagoen leihotik euriaren hotsa sartzen da.

Zutitu, hara hurbildu eta burua leihotik agertzen du:

Gogotik ari du euria, leiho aurrean osatzen duen gortinak eguna iluntzen eta lausotzen du.

Nahigabezko keinu batez, leihoa ixten du Nestorrek.

64 **INT. GARIZMENDI. SUKALDEA - EGUNA**

64

Karmen eta Karmelo mahaiaren inguruan eserita daude. Azken hau lehen bezalatsu jantzita dago, kremaileko jertse ilun batekin eta barruan koadrodun alkandora batekin. Aurrean katilu bete kafe bana.

Apaiza harengana makurtuta dago, hurbiltasun emozionala edo bilatuz. Alaba bati bezala mintzatzen ari zaio. Karmenek, berriz, inongo berotasunik gabe begiratzen dio.

KARMELO

... eta atsekabearen orduan,
Karmen, aitortzak arimaren bakea
emango dizu...

Bakarrizketa kolpez eteten da Nestor sukaldera sartu eta gelditzen denean, batere ez pozik apaiza ikustean. Biek, ezeroso, kafea hartzeari ekiten diote.

KARMELO

Egun on, Nestor.

Made in Highland

Hau, erantzun gabe, ekonomikara doa eta kafea zerbitzatzten hasten da bizkar eginik. Hantxe geratzen da zutik, kafea apurka edaten eta apaizari begira.

Karmen axolagabe dagoela dirudi, apaiza berriz ezeroso, harik eta erlojua begiratzen duenera arte.

KARMELO

Uf! Honezkero parrokian behar nuke aitortzeko.

Zutik jartzen da eta Karmeni begiratzen dio berriro.

KARMELO

Badakizu non nagoen, Karmen...

Karmenek ez dio erantzuten. Karmelok, hala ere, irribarre batez amaitzen du eta badoa atetik kanpora.

Nestorrek begiradaz jarraitzen dio, oraindik aldarte txarrez. Kafe gehiago edaten du, astiro, buruan zerbait darabilela.

NESTOR

Ama, etxean bizitzera geratzea pentsatzen ari naiz.

Karmenek adi-adi begiratzen dio, zirrarak erakutsi gabe. Hausnar agian. Nestor inoiz ez datorren erreakzioaren zain dago, txundituta.

KARMEN

Eraman nazazu herrira.

Nestorrek ez du ulertzen.

KARMEN

Plazakoa egitera.

65 INT. POLIZIA-ETXEA. HARRERA ARETOA - EGUNA

65

Nestor polizia-etxera sartzen da eta arreta-leihora hurbiltzen da. Han dagoen ertzainari zerbait diotso eta honek zerbait erantzun. Nestorrek nortasun agiria atera eta eman egiten dio.

Ertzainak agiria hartu eta zenbaki bat markatzen du. Norbaitekin hitz egiten du, Nestorren agiria irakurriz...

66 INT. POLIZIA-ETXEA. BISITARIEN GELA - EGUNA

66

Nestor mahai biribil baten aurrean eserita dago, zain. Kortazar sartzen da, esku batean plastikozko poltsa bat dakarrela, bestean formulario bat.

Poltsa mahaian jartzen du, Nestorren aurrean. Hau ez da zutitzen ez hari bostekoa ematera ere.

KORTAZAR

Horra, hire aitaren gauzak...

Kortazarrek, eseri gabe, formularioa eta boligrafo bat ere jartzen dizkio, sina dezan. Ezeroso dago. Nestorrek sinatzeari ekiten dio.

KORTAZAR

Lanroberra tabernaren aurrean aurkituko duk.

Nestorrek burua altxatzen du.

NESTOR

Beraz, aita oinez joan zuan etxera.

KORTAZAR

Edo norbaitek eraman zian.

Nestorri deigarria iruditzen zaio Kortazarren erantzuna, zalantzaren bat izango balu bezala.

NESTOR

Baina ikerketa itxi da, ala ez?

Kortazarrek ezbai txiki bat du. Ez zaio gustatzen esan beharra.

KORTAZAR

Ixtear dago... (Beste ezbai bat)
Azkenean suizidioa da.

Nestor segundo batean so geratzen zaio, gero zutitu eta poltsa hartzen du alde egitekotan. Ez du pauso bat eman eta Kortazarrek, esan ez esan egon ondoren:

KORTAZAR

Aizak, Araia, hire ustez nork lapurtu zituen hezur horiek?

Nestor berarengana bihurtu, une batez hausnartu eta sorbaldak jasotzen ditu.

NESTOR

Heu haiz polizia.

Badoa. Kortazar ateari so dago baina ikusi gabe. Gogoia beste nonbait dauka.

67 EXT. HERRIA. TABERNA INGURUA - EGUNA**67**

Nestor kale barrenetik dator, poltsa eskuan dakarrela. Taberna ingurura iristen da, alde batera eta bestera begira.

Ferminen lanroberra gertu dago aparkatuta. Harantz doa eta aldi berean eskua poltsan sartzen du eta laster atera ere autoko giltza.

68 INT. LANROBERRA - EGUNA**68**

Nestor bolantearen aurrean eseri da eta atea ixten du.

Poltsa ondoko eserlekuan jarri eta giltza sartzen du, baina piztu gabe. Bolanteari eusten dio, pedalei sakatzeko keinua egiten du. Ez dago gustura.

Eserlekua apur bat mugitzen du. Oinak orain egokiago daudela dirudi. Baina atzerako ispilua oker dago eta hura ere mugiten du ondo jarri arte.

Dena bere moldera egokituta ere, ez dago gustura. Azkenean, motorra pizten du. CD irakurgailua pizten da eta ikaraldia hartzen du Xabier Leteren ahots tristea **Ni naiz** kantari entzutean

XABIER LETE (KANTARI)

... Ni naiz burrukaren erdian,
ilunpetan etsita, amur ematen
duen pizti beldurtia...

Erreakziorik gabe geratzen da, segundo batzuetan adi dago.

XABIER LETE

Ni naiz, ezerezetik ihes,
munduaren erdian ezin aurkitutako
amets urrutia...

Apurka, hitzei erreparatuz joan da, bat-batean jasanezin edo egiten zaionera arte. Tupustean, CD botoiari sakatzen dio eta diskoa irteten da. Hartu eta poltsa ere hartzen du.

Diskoaren kaxa han dago eta, hartzerakoan, aitaren zorroan erreparatzen du. Kuxkuxero, hau hartu eta ikuskatzen du...

Ezer gutxi, NAN agiriaz beste: argazki bat, ertz nahiko higuatuk dauzkana. Hau ateratzen du...

Aitorren eta Nestorren argazkia da, 16 bat urte zutenean ateratakoa. Biak pilotari jantzirik agertzen dira, biak ere irribarretsu...

69 FLASHBACK: INT. GARIZMENDI. LOGELA - EGUNA (1989)**69**

Karmen Aitorren arropa ondo kokatzen ari da ohe gainean dagoen maleta batean.

Nestor ate-atean dago, begira, amorratu antzean.

Aitor armairutik dator eskuetan alkandora eta praka zuriak dakartzala, eta maletan uzten ditu. Karmen geldirik geratzen da une batez eta, semeari begiratu gabe, jantzia albo batera ateratzen du.

KARMEN

Han ez duzu pilotan jokatuko.

Aitorrek ez du ihardesten. Karmenek, aurpegia lehor, maleta ixten du eta zutik jartzen dio Aitorri, honek har dezan.

AITOR

Eta aita?

Karmenek sorbaldak jasotzen ditu eta logelatik irteten da.

70 FLASHBACK JARR.: EXT. GARIZMENDI BERRI - EGUNA (1989) 70

Aitor, maleta eskuan dakarrela, Garizmendi Berriko sarrerara heltzen ari da. Nestor ondoan doa. Biak isilik eta elkarri begiratu gabe.

Burdinazko atea irekitzen ari da. Ikusi baino lehen entzun egiten dira txakurren zaunka mehatxagarriak. Ate-atean daudenean biak gelditzen dira.

Estanis agertu da, txakurrak etzanda jarri eta aterantz dator. Eskumuturrean daraman urrezko erlojua distiraka ari da. Ezbaian dago Aitor eta anaiarengana bihurtzen da.

Baina Nestor ez dago jadanik han: etxera bidean doa korrika eta atzera begiratu gabe. Aitorrek maletari irmoago eusten dio eta sartu egiten da.

FLASHBACK AMAIERA

71 EXT. HERRIA. ELIZA AURREA - EGUNA (ORAIN) 71

Karmen elizaren aurreko plazara iristen da. Plazako gurdia herrestan dakar eta kargatuta dagoela dirudi. Begiak elizara joaten zaizkio eta bertan gelditzen da.

Segundo pare batean hantxe geratzen da, hausnar.

72 EXT. HERRIA. ELIZA AURREA - EGUNA 72

Tartetxo bat geroago

Karmelo apaizak plazan zeharkatzen du elizarantz. Halako batean Karmen ikusten du, gelditu eta harengana hurbiltzen da, irribarreka.

KARMELO

Karmen! Bi aldiz egun berean!
Zertan hemen?

Emakumeak ez dio irribarrea itzultzen.

KARMEN

Lehen esan didazunaz pentsatzen.

KARMELO

(Pozarren)
Pozten naiz. Ea, goazen
barrura...

Besoaz gonbit egiten dio elizarantz.

KARMEN

Hemen ondo nago.

Karmelo txundituta samar dago baina, amore keinu leun batez,
emakumearen ondoan esertzen da.

KARMELO

Ongi... Eta, zer pentsatu duzu?

KARMEN

Hor barruan ez zaidala ezer
galdu.

Elizara begira dago orain. Karmelok bekozkoa jartzen du.

KARMELO

Karmen, berriro diotsut, eliza
beti izango duzu lagun...

KARMEN

(Eteten, garratz)
Lagun? Saltzen zenidan jainkoak
bertan behera utzi ninduen. Bai
kabroi galanta, jainko hori!

KARMELO

(Haserretzen)
Karmen!

KARMEN

Behar dudana uko egin zidan.

Apaiza ahalegin handia ari da egiten pazientzia ez galtzeko,
baina galtzeko zorian dago.

KARMELO

Eta zer behar duzu, jakiterik
badago?

KARMEN

Justizia.

Apaizari adi-adi so dago. Honek eutsi egiten dio une batez,
bera ere adierazpen gogortuaz, gero zutik jartzen da.

KARMELO

Justizia ez, zuk mendekua nahi
duzu!

KARMEN

Behin batean norbaitek bizitza
zapuztu zidan. Erantzuteko ordua
dut.

KARMELO

Ba, Jainkoak ezin dizu horretan
lagundu! Ez elizak, ezta nik ere!

Karmen zutik jartzen da.

KARMEN

Badakit. Bakarrik nago. Beti
bakarrik egon naiz.

Badoa gurdia herrestan eramanez. Hantxe geratzen da Karmelo,
harengandik begirada kendu ezinik, erabat jota.

73

EXT/INT. PARROKIA/LANROBERRA - EGUNA

73

Karmen espaloian dago zain, erosketarako orgari eutsirik,
Nestor lanroberrean hurbildu eta aurrean gelditzen denean.
Eskuko balaztari eragin eta autotik jaisten da amari
laguntzera joatekotan.

Karmen kopilotuaren eserlekura igotzen da Nestorrek gurdia
atzeko eserlekuan kargatzen duen bitartean.

Abian jartzen dira. Karmen beti bezain isilik doa, Nestor
beti bezala galderaren batekin airean.

NESTOR

Ama, aitak aurkitu zituen hezur
horiek... ez ote ziren neska
harenak izango? Adelarenak?

Karmenek interes pittin batez begiratzen diola dirudi, baina
segidan itzultzen da bere hieratismora.

KARMEN

Auskalo.

NESTOR

Eta hala bada, nork hartu ote
zituen?

Elkarri begiratzen diote. Biek erantzun berbera dute buruan.

74 INT. TABERNA - GAUA (ORAIN)

74

Kortazar tabernara sartu da. Pauso pare bat baino ez eta bertan gelditzen da, ingurura begira. Ez darama armarik.

Barraren aurrean eserita, bezero bikote gazte bat eta haren barruan MOTZA, 50etik gorako gizon txiki bat. Mahai batean lau lagun kartetan ari dira.

Barrenago, beste batean, hiru daude eserita, edaten baina jokatu gabe. Bat Abel da, aulkia atzekoz aurrera jarrita dauka, besoak aulkiaren bizkarraldean bermatuta, betilun. Besteak KOJUA eta JUANITO, biak 60 urtetik gorakoak.

Inork ez dio Nestorri erreparatu. Hormako euskarri batean dagoen telebistan, errugbi partida bat ematen ari dira.

NESTOR

Gau on denoi!

Orain denak bueltatzen dira. Barra aldekoek erantzun arina egiten diote. Mahaietakoak, tabernaria bera, berriz, isilik geratzen dira. Ez daude ohituta bera han ikustez.

Kortazarrek Ferminen hiru laguneren mahaiari ipintzen du arreta.

75 INT. TABERNA - GAUA

75

Zenbait minutu geroago

KORTAZAR

Fermin hemen egon zen, ezta?

Kortazar orain hirurekin eserita dago. Aurrean garagardo bat dauka, sekuentzia osoan ukituko ez duena.

Kojuak sorbaldak uzkuratzen ditu.

KOJUA

Beti bezala.

Abelek zeharkatu egiten du begiradaz. Kojuak nabaritu eta, kikilduta, begirada Juanitoren gana baztertzen du. Badirudi hiruren artean Fermin ez dutela inoiz aipatzen.

Tabernako atetik hiru lagun gazte sartu dira, denak batera berriketan eta zeinek baino zeinek ozenago. Barrara doaz eta Motza agurtzen eta kaña erronda bat eskatzen hasten dira hirurak, algaraka.

Kortazarrek mahaira itzultzen du arreta: beste hirurak adierazpenik gabeko estatuak baino ez dira.

KORTAZAR

Eta Estanis ere hemendik ibili zen?

Galderak urduri jartzen ditu eta elkarri begiratzen diote.

JUANITO
Zer, ba? Ferminen kontuagatik?

KORTAZAR
Horretaz ezin dut hitz egin.

Honek errespetua ematen die eta berak hau baliatzen du.

KORTAZAR
Beno, zer? Fermin Estanisekin
egon zen, ala ez?

Abelek, lehenengo aldiz, interes apur bat erakusten dio Kortazarri. Ezbaian dago, zerbait esatekotan dagoela dirudi, baina Juanitok aurea hartzen dio.

JUANITO
Ez dakit, baliteke... Estanis
barran zegoen, Ferminek alde egin
eta segidan joan zen.

Haxe da Kortazarrek entzun nahi zuena, eta begiak piztu egiten zaizkio.

76 EXT. HERRIA. TABERNA INGURUA - GAUA 76

Kortazar espaloian da, norbaiten zain itxura denez, hain dago ezinegon, urrats urduriak emanez alde batera eta bestera.

Auto bat iritsi eta ondoan gelditzen da. Ezpeletak burua agertzen du leihotik. Kortazar igo egiten da, hitzik gabe.

77 INT. EZPELETAREN AUTOA - GAUA 77

Autoa abian jartzen da berriro. Kortazar tentsioan dago, begiak aurrera josita. Ezpeletak galdera airean begiratzen dio.

KORTAZAR
Bera izan da. Putasemea! Bera
izan da!

Ezpeletak, arreta gidatzean jarrita, baiezko arina egiten du.

EZPELETA
Bila ditzagun hezur horiek.

78 EXT. GARIZMENDI. ETXAURREA - EGUNA 78

Nestor etxetik irten eta lanroberrerantz doa. Bide erdian gelditu egiten da, oilategira begira. Zerbait ez dago ondo.

Oilategiko atea erdi zabalik dago. Zirrikitutik zerbait ikusgarritzko errekasto bat sortzen da.

Hara hurbiltzen da: lumazko errekastoa da. Aztoratuta, bizkortu eta oilategira sartzen da.

79 INT. GARIZMENDI. OILATEGIA - EGUNA**79**

Oilategiko atea kolpez zabaltzen du. Pauso bat ez du egin barrurantz eta bertan gelditzen da, zur eta lur.

Zorua oilo sakabanatuz estalita dago. Denak hilik, lepoak bihurrituta, itxuraz.

NESTOR

Joder! Baina zer...? Ama!

Bere senera dator eta azkenean sartzen da, oiloei izkina eginez, alde batera zein bestera zainduz.

NESTOR

Kagoendios!

Mugikorra atera eta bilatzen hasten da itsumustuan.

KARMEN (O.S.)

Horiek asko konponduko dute, ba.

Ustekabean hartuta itzultzen da Nestor. Karmen atean dago, besorik gabeko anorak zaharrarekin jantzita. Tonu eszeptikoak eta adierazpenik ezak zalantza ekartzen diote Nestorri.

KARMEN

Aitaren hilketarekin ere zer egin dute, ba?

NESTOR

Baina salatu egin beharko.

KARMEN

Badakigu erruduna nor den. Horrela ez duzu inoiz geldituko.

Inora begiratzen du Nestorrek, nora eta Garizmendi Berri aldera dagoela konturatu gabe. Gero mugikorrera bihurtzen da. Atzamarra bide erdian geldituta dauka.

Inguruan, oilo hilek berebiziko lehentasuna hartzen dute. Telefonoak bere eskuan ere bai. Amaren begiak, berak zer erabaki zain... telefona...

80 EXT. GARIZMENDI. LARREAK - ILUNABARRA**80**

Euria ari du gogotik. Sute baten garrak, txinpartaka, indartsu, zer edo zer indarrez erretzen.

Zerbait erortzen da sutara. Gero beste zerbait. Sutearen oinarrian pilatutako oilo batzuk daude.

Sutea larreetan propio egindako zulo handi batean da, orain oilo hilez ia gainezka. Parean Nestor dabil, aitzurra aldamenean erorita, izerditan eta gomazko eskularruak jantzirik, azken oiloak sutara botatzen, euritako batean babestuta.

Bi pauso atzerago Karmen dago, beste euritako batekin, begirada sutean galduta. Nestorrek azken oiloa bota, kopeta eskugainaz sikatu eta harengana bihurtzen da. Karmen konturatu ez, adierazpen bitxi horrekin jarraitzen du.

Nestorrek ezin du galarazi ezeroso sentitzea, eta alde egiten du, baina Karmenek ez du arreta sutatik kentzen.

81 INT. FISKALAREN BULEGOA. PASILLOA - EGUNA 81

Eraikuntza baten barruan gaude. Aurrean daukagun atean honelako plaka dago agerian: "**Lurraldeko Fiskalburua**".

Bulego barrutik, laster ezagutuko dugun FISKALAREN ahotsa datorkigu:

FISKALA (O.S.)
Beraz, aztarnarik utzi gabe
desagertu zen...

82 INT. FISKALAREN BULEGOA - EGUNA 82

Fiskala paperez eta txostenez betetako mahai baten aurrean eserita dago, beste aldean Kortazar eta Ezpeleta.

Fiskala aurrean irekita daukan txosten bat ikuskatzen ari da, eta, txandaka, argazki batzuen neurri ertaineko kopiak, Nestorrek hezurrei atera zizkienak alegia, baita azazkalaren lehen plano batena.

Fiskalak Kortazarri so egiten dio.

FISKALA
Adela, zure arreba nagusia.

KORTAZAR
Bai, jauna.

Fiskalak argazkiak hartzen ditu eta gertuagotik aztertzen.

EZPELETA
Ikusiko duzunez, DNAk
kointzidentzia eman du. Adela
zulo hartan lurperatuta egon da,
dudarik ez.

Fiskalak baiezko batez erantzuten dio eta txostena aztertzen du berriro.

FISKALA
Mila bederatziehun eta laurogeita
hamarrean... Hamalau urte dira.
Bai, delitua oraindik preskribatu
gabe egongo litzateke.

KORTAZAR
Beraz, baliteke hiltzaileak
lapurtu izana.

FISKALA
Inork hil bazuen ere.

Begira geratzen zaio Kortazarri, ezpainak zimurtzen. Ez du
mindu nahi.

FISKALA
Tamalez, gorputzik gabe ez dago
hori jakiterik, ezta sumario
berri bat irekitzerik.

Kortazarrek argazkiak seinalatzen ditu.

KORTAZAR
Orduan, zergatik lapurtuko zituen
inork hezurak?

FISKALA
Galdera horri erantzuteko,
aurkitu egin beharko dira
(Hausnar) Aurrera ba, bila
itzazue hezurak. Baina...

KORTAZAR
Eskerrik asko, fiskal jauna.

Zutitzekotan Kortazar, pozarren, baina fiskalak ez du amaitu.

FISKALA
... Baina noski, inplikazio
emozionalik ez izatea espero dut.
(Ezpeletari) Zurekin kontaktzen
dut.

Ezpeletak baietz egin eta Kortazarri begiratzen dio, hau
berriz zutik jartzen da besterik gabe.

83

INT. POLIZIA-ETXEA. BISITARIEN GELA - EGUNA

83

Estanis lehengo mahai biribilaren aurrean eserita dago eta ez
da zutitzen Ezpeleta eta Kortazar sartzen direnean,
bigarrenak karpeta bat dakarrela.

Ezpeletak bostekoa ematen dio eta berak onartu baina
Kortazarri so, desafioka, harropuzkeriaz, eta horrela egongo
da denbora guztian.

EZPELETA
Egun on. Ezpeleta...
(Seinalatzen) Kortazar.

ESTANIS
Hau ezaguna dut.

Entzungor eginez, Kortazarrek karpeta ireki, orri bat atera eta Ezpeletari helarazten dio. Grabagailua ere atera, botoiari sakatu eta mahaian lagako du. Bakarrik orduan begiratzen dio Estanisi.

EZPELETA

Abokaturik gabe zatoz.

ESTANIS

(Harritu antzean)

Behar dut, ala? Zertara natorren ere ez dakit.

EZPELETA

(orria irakurrita)

Fermin hil bezperan, Garizmendin hezur batzuk agertu ziren, eta segidan desagertu.

ESTANIS

Han desagertu baziren, hangoei galdetu.

EZPELETA

Ez dakizu nork izango ote zuen lapurtzeko interesik?

Estanisek "ufa" mespretxuzko batez erantzuten du, "*hori galdera lerdoa*" adierazi antzean.

Ezpeletak jaramonik ez eta, hurrengo galdera irakurrita, tonu berean galdezka jarraitzen du.

Kortazar Estanisi adi-adi begira dago oraindik.

EZPELETA

Zer dakizu Fermin anaiaren heriotzari buruz?

Estanisek sorbaldak jasotzen ditu.

ESTANIS

Bere burua hil zuenetik, ezer gutxi.

EZPELETA

Ez duzu uste beraren heriotzak hezurrekin zerikusia izan zuela?

ESTANIS

Zer hezur eta zer letxe?!

EZPELETA

(zorrotz)

Axola ez bazaizu, edukazio apur bat eskertzekoa izango da.

ESTANIS

Fermin ezagutzen zuen edozeinek
bazekien hala amaitu behar zuela.
Txepel hutsa izan ez balitz,
duela urte asko egingo zuen.

Ezpeleta bere orrian kontzentratzen da arnasa hartu ahala,
bere onetik ez ateratzearren. Kortazarrek, zirkinik ez.

EZPELETA

Beraz, Fermin hil zen gauean ez
zinen berarekin egon, eta ez
zizun hezurrena kontatu?

Estanisek ez du lehenbailehen erantzuten oraingoan.

84 FLASHBACK: INT. TABERNA - GAUA (ORAIN GUTXI)

84

Ferminetik zartada bat askatzen du mahaiko edalontzi batzuk
pikutara bidaliz. Kristal hautsizko zarata bere orroekin
nahasten da.

FERMIN

Hoa porkulo hartzera, kabroia!

Zutik dago eta alde egitekotan, beste hirurak, Juanito, Kojua
eta Abel, zutik jarri eta lasaitzera datozen bitartean.

KOJUA/JUANITO

Fermin, ez haserretu, joder... /
Adarra jotzen ari ninduan...

ABEL

Fermin, ez, lasai, hi...

Honek Fermini besotik eusten dio, baina Fermin berarengandik
askatzen da, amorruz.

FERMIN

Kendu eskuak, ** **osti! Porkulo
hartzera denok!

Kalera abiatzen da, zabuka. Abel begira geratzen da, kezkaz,
besteak berriz barreka.

85 FLASHBACK JARR.: EXT. HERRIA. TABERNA INGURUA - GAUA

85

Euri mehea ari du, hormak eta espaloiak busti-bustirik daude.
Ferminetik pixa egiten amaitzen du, horman batean, beso bat
honen aurka jarrita. Astindu bat eta badoa lau metrora dagoen
lanroberrerrantz, patrika arakatu ahala giltzaren bila.

ABEL (O.S.)

Fermin!

Honek buelta ematen du, hain zuzen giltza ateratzekotan daukala, eta hau lurrera jausten da. Abel parera iritsi eta hartzera makurtzen da, Ferminnek erreakzionatu baino lehen. Honek eskua luzatzen du giltza hartzekotan, baina Abelek izkin egiten dio. Bitartean, harago geratu den tabernako atetik Estanis irteten da.

ABEL

Ez hago gidatzeko moduan.

FERMIN

Eman, joder!

ABEL

Ez! (Estanis antzematean)
Estanisek eramango hau!

Ozenki esan du Estanisek argi entzun dezan. Hau bertan gelditzen da, bekozko iluna jarrita.

ESTANIS

Nik? Y una hostia! Txahala botako zidak autoan.

Ferminnek ere buelta eman du eta anaiari so dago. Bi hankak ondo zabalik falta duen orekari laguntzearren, atzamarrak seinalatzen dio.

FERMIN

Hi kabroi hutsa haiz.

Mihiak irrist egiten dio baina argi ulertzen zaio. Estanisek barretxea egiten du, harrituta samar nahi eta nahi ez Fermin hurbiltzen zaionean.

FERMIN

Hezurak aurkitu ditiat
Garizmendin!

Estanisek bekozkoa jartzen du, ulertu gabe.

FERMIN

Orain santuarena egin, notejode!
Ondo dakik hik norenak diren. Eta
hire lagun txapelokerrek ere bai.

Abel Ferminen parera iritsi da eta besotik tira egiten dio isilarazi nahian. Estanisen ezpainak lerro fin bat bihurtzen dira. Amorratu egin da eta kalte egitera doa.

ESTANIS

Horixe badakidala! Eta Aitorrek
ere jakin zian, lurperatzeko
agindu nioan eta! Esaiok, Abel!

Estanis bere mespretxu guztia askatzen ari da. Ferminek ez du zirkinik egin, begirada zentratu gabe jarraitzen du. Abel berriz, zer egin ezean.

ESTANIS

Esaneko mutila zuan gure Aitor.
Otzan-otzan egiten zitian aitak
esandakoak.

Ferminek ezin du gehiago jasan eta, amorruren amorruez, ukabila altxatzen du jotzekotan.

FERMIN

Putaseme hori, txikituko haut!

ABEL

Fermin!

Abelek besoari eusten dio, baina beharrik ez, airean geratzen baitzaio garai hartan bezalaxe. Estanisek ez du begi-kliska bat ere egin, desafioka.

ESTANIS

Ea ba! Ez, ez dauzkak potroak.
Oilo kakatia izan haiz beti.

Ferminek oraindik segundo pare batean jarraitzen du horrela, gero, eta amorruzko urruma batez, ukabila jaisten du. Estanisek, orduan, bere irribarre kabroi hori erakutsi eta, besterik gabe, autorantz jarraitzen du.

Hantxe geratzen da Fermin, begiak gorrituta eta nekez prozesatzeko gai dela. Abelek, orduan, giltzak ematen dizkio. Ferminek begiratu gabe hartzen ditu eta, autora joateko saiorik egin gabe, urrundu egiten da.

FERMIN

Kagonlahostia!

Gauean galtzen da, alderik alde ibiltzen.

FLASHBACK AMAIERA

86

INT. POLIZIA-ETXEA. BISITARIEN GELA - EGUNA (ORAIN)

86

Estanisek bi ertzainen begiradak beregan josita dauzka eta, ez esfortzurik gabe, eutsi egiten die.

ESTANIS

Ez. Ferminek ez zidan ezer esan.

Ezpeletak baietz egiten du kontua amaitutzat emanez eta Kortazarri begiratu. Hau, berriz, ez dago pozik.

EZPELETA

Beno, eskerrik asko, oraingoz
nahikoa...

KORTAZAR

Gezurra!

Beste biak ustekabeen hartzen ditu erreakzioak. Kortazar Estanisengana makurtzen da mahai gainetik.

KORTAZAR

Ez dizut sinesten: nik uste dut
Ferminek hezurrena kontatu zizula
eta zuk lapurtu zenituela, zeren,
agerira atera eta norenak ziren
argitu balitz, delitua izango
zelako.

Ezpeleta, ezin harrituago, lankidea eteten saiatu da
alferrik, Estanisek agresiboki erantzuten duelarik.

EZPELETA

Kortazar... nahikoa...

ESTANIS

Zer ostia diok hik? Hau salaketa
ofiziala da, ala zer?

EZPELETA

Ez, barkatu, Araia jauna...

KORTAZAR

Non dago Adela?

Estanisek barre-algara egiten du.

ESTANIS

Eta zer osti dakit nik!
Edozeinekin joaten zuan urdanga
hura.

Hori gehiegi da Kortazarrentzat: mahai gainetik Estanisengana
oldartu, paparretik bi eskuez eutsi eta altxarazten du,
beregana ekarri nahian.

KORTAZAR

Zuk hil zenuen, putakume horrek!
Esateko non dagoen... Non dago
Adela?

Ezpeleta ere zutitzen da eta Kortazarrek askatzea saiatzen
da.

EZPELETA

Kortazar, askatu! Begira niri,
Kortazar!

Kortazarrek kasu egin eta horrek bere senera etortzen
laguntzen du. Estanis askatzen du, begiak gorrituta dauzkala
eta arnasestuka.

EZPELETA

Kanpora, mesedez.

Une bat behar du Kortazarrek baina protestarik gabe irteten da.

87 EXT. KALEA - EGUNA

87

Kortazar auto baten kontra jarrita dago, eskuak patriketan. Ezpeleta dator eta ondoan jartzen da.

EZPELETA

Ez dizu salaketarik jarriko. Men ez egite eta irainengatik salatuko genukeela azaldu diot.

Kortazarrek baiezkoa egiten du.

EZPELETA

Zergatik zaude hain itsututa berarekin?

Segundo bat hartzen du Kortazarrek. Gaia kosta egiten zaio.

KORTAZAR

Estanis Araiak inguruko droga banaketa menperatzen zuen. Txapelokerrekin eta jende printzipalarekin tratuak zeuzkan. Inork ez zion eskua bota, jendea beldurtu edo erosi egiten zuen eta kito...

Barruko patrikatik zorroa ateratzen du. Honetatik argazki bat atera eta Ezpeletari erakusten dio. Kolorezkoa da eta Adela agertzen du, 16-17 urtez, irribarreka.

KORTAZAR (O.S.)

Adela... Bizimodu errazaren zalea, badakizu: drogak, gaua... Eta nondik ordaindu ez...

Isilik geratzen da, argazkiari so.

88 FLASHBACK: EXT. GARIZMENDI BERRI. LORATEGIA/INGURUAK - GAUA (1990)

88

Garizmendi Berriko metalezko atetzarra erdi zabalik dago. Zabalik dagoen erdian **diana **handi bat dago margotuta, eta honen azpian "PUTO KAMELLO"**** hitza, premia antzeko trakeskeriaz idatzita.

Barrutik festa zarata datorkigu: musika, berriketa, barreak...

Ilunpetatik mutil gazte bat agertzen da. Kortazar da, orain 16 urterekin. Atetzarraren aurretik azkar igaro eta hesian barrena jarraitzen du, bazter ostean aurrera.

Kortazarrek hesiko toki bat aukeratzen du eta igo egiten da. Hesiko zuhaixkak baztertu eta zirrikitu bat zabaltzen du barrurantz kirik egiteko beste...

Dozena bat lagun daude lorategi eta igerilekuaren inguruan, denak kopak edo edalontzi luzeak eskuan, berriketan gehienak, bizpahiru berriz mozkorren modu traketsean dantzan, etxeko leiho batean jarritako bozgorailuetako musikaz.

Hantxe daude Estanis, bizpahiru neska gazte dantzan eta adin ertaineko zenbait tipo ezezagun. Nesketako bat Adela da (orain 18).

Etxeko horma aldean, leihotik gertu, botilaz eta edalontziz beteriko mahai bat dago eta, honen atzean, Aitor trago bat prestatzen.

Biboteduna ere hantxe dabil (poker partidari ezagutu dugun berbera) edari batekin. Adelarengana hurbiltzen da eta bereganantz erakartzen du, gerritik oratuta.

Adelak ez du indarririk egiten eta arrimatzen uzten dio, eta bi eskuez ipurdia zirrikatzen. Tipoak zerbait diotso belarrira eta Adela, irribarreka, berarengandik banatzen da eta bueltatzen, gertu dagoen Estanisengana hurbiltzeko.

Zerbait diotso honi, Bibotedunak eskutik eusten dion bitartean. Estanisek, orduan, zerbait ateratzen du alkandorako patrikatik eta Adelari eman. Biboteduna orduan tiraka hasten zaio neskari eta etxe barruan desagertzen dira.

Kortazar ez da tokitik mugitzen. Aitorrengan erreparatzen du orain: mutila metalezko erretilu baten gainean makurtuta dago, kutxilo baten laguntzaz zerbait zurizko ilara bat eragiten. Gero, boligrafo tutu bat sudurzuloan jarri eta gauza zuria xurgatzen du.

Orduan, goiko solairuan argi bat pizten da eta hara begiratzen du Kortazarrek.

Bat-batean, tiro baten zaratak erabat asaldatzen du Kortazar eta ia erorarazi. Atetzarraren aurrean, gonbidatu bat diana tirokatzen ari da pistola batekin, beste pare baten begirada eta barreen pean.

Estanis haiengana hurbiltzen da, amultsuki eskuez keinuka iskanbila bertan behera uzteko. Pistoladuna beraiengana bihurtzen da eta, burlaka, tiro bat egiten du airetara. Barre-algaraka hasten dira denak.

Kortazar, berriz, izutu egiten da eta hesitik jauzi egiten du, eta lurrera erori ere bai. Arrapaladan zutitu eta hanka jokoari eragiten dio.

FLASHBACK AMAIERA

89

EXT. GARIZMENDI BERRI. LORATEGIA - EGUNA (ORAIN)

89

Agertoki berbera daukagu, nahiz eta orain igerilekua hutsik egon eta lohikeriaz beterik. Begirada bertan galduta, bere gogoetetan, Estanis hantxe dago zutik, eskuak patriketan.

Etxe barrutik zarataren bat dator. Ertzain pare bat agertzen da eta kanporantz abiatzen, Zientifikako peto eta beisbol kapelekin, eskuetan maleta banarekin.

Segidan Ezpeleta eta Kortazar agertzen dira, eta beste bi agente, denak peto eta kapela banaz jantzirik. Arakatzea amaitu dute eta, antza denez, badoaz ezer aurkitu gabe.

Estanisen parera igarotzean, Kortazar gelditu eta so geratzen zaio une batez. Estanis konturatu eta, desafioka, begirada itzultzen dio. Apur bat harago Ezpeleta ere geldituta dago, zer gerta ere. Baina Kortazarrek ezpainak estutu eta bere bidean jarraitzen du.

Behin bakarrik, Estanis etxeko bazter baterantz hurbiltzen da: han txakur-etxola dago eta adi-adi begira geratzen zaio, kanpo aldean ertzainen motorrak piztu eta urruntzen diren bitartean...

90

FLASHBACK: EXT. GARIZMENDI BERRI. TXAKUR-ETXOLA - GAUA (1990)

90

Estanisek eskuan dauka oilasko platera. Beraren begiradapean, Aitor makurtzen ari da oilasko zati bana eskuetan daukala, besoa asko luzatuz.

Ia atzeraka egiten du bi txakurrak gainerantz datozkionean, baina hauek oilaskoa harrapatzen dute besterik gabe.

ESTANIS

Ikusten? Jaten ematen duen eskuari ez zaiok kosk egiten. Hik ere halako leialtasuna erakutsi beharko duk. Ulertu duk?

Aitorrek baietz egiten du. Estanisek arretaz begiratzen dio. Gero platera oilaskoa eskuz aldatu eta pistola bat ateratzen du gerriko barrutik.

ESTANIS

Ikus dezagun, ba. Hil ezak bat.

Pistola eskaintzen dio. Aitorrek tua irensten du, izututa.

AITOR

Zein?

ESTANIS

Heuk aukeratu.

Ezbaian dago baina pistola hartzen du, esku dardartiaz. Estanisen plateretik oilasko zati bat hartzen du eta txakurretako bati erakusten dio, etortzeko deika.

Txakurra etorri badator, otzan, hezurra harrapatu eta bertan haginkatzeari ekiten dio.

Aitorrek burura destatzen dio. Eskuak dar-dar egiten dio, zirt edo zart dago... Tiro egiten du eta **klak!**

Pistolak ez du balarik. Aitorrek, txundituta, ez du erreakzionatzen. Estanisek, pozez irribarreka, pistola kentzen dio.

ESTANIS

Ongi harrapatu duk.

Eskua patrikan sartu eta eskutada bete papelina ateratzen du. Haren ahurrean jartzen ditu.

91 FLASHBACK JARR.: INT. GARIZMENDI BERRI. EGONGELA - GAUA (1990) 91

Egongelan lagun batzuk daude eta musika ere ozen. Bat mahai baxuan osatutako kokaina marrak esnifutzen ari da, beste bat txandaren zain dagoela. Beste bizpahiru edaten eta ozenki barreka ari dira.

Aitor, Adela eta beste NESKA bat tragoak prestatzen ari dira. Estanis dator eta sorbaldan zaplada pare bat ematen dio.

ESTANIS

Ederki habil.

Estanisek Adelari eta Neskari begiratzen die. Hauek, barreka, zeinek bere poltsa hartu eta hurbildu egiten dira, txundituta dagoen Aitorri eskutik eutsi eta handik daramate, ondoko gelarantz.

92 FLASHBACK JARR.: INT. GARIZMENDI BERRI. LOGELA - GAUA (1990) 92

Logelara sartzen dira eta Aitor ohe gainean eseraraztera daramate bien artean, barretxo artean bultzaka. Berak obeditu egiten du, kilikatuta.

Adelak takoidun zapatak kentzen ditu eta Aitorren aurrean belaunikatzen da. Poltsatik Nan agiria eta kokaina papelina bat ateratzen du eta airean astintzen du, eskaini antzean. Nestorrek uko egiten du, serio, lotsaz beharbada.

Neskak berriz barre egiten du Nestorren arreta erakarriz: arroparen azken arrastoa askatu eta zeharo biluzik dago. Ohera igo eta bertan etzaten da, ahoz gora, irribarreka.

Adelak orduan, Nan txartela erabiliz, bi marratxo prestatzen ditu haren sabelaren gainean, di-da, gero mila pezetako billete bat atera eta, tutu bat eginda, Aitorri eskaintzen dio. Honek, gutiziazko begiz, hartu eta Neskaren gainera makurtzen da.

Adela zutitu eta biluzik jartzen da Aitorrek xurgatu bitartean.

Biluzita, Adela ohera igo eta billetea kentzen dio. Neskaren gainera makurtu eta bigarren marratxoa xurgatzen du. Aitorrek, begiak piztuta, Neskaren izterrak ferekatzen ditu. Adelak amaitu eta, Nestorren eskuari eutsirik, Neskaren alura darama...

Logelako atea erabat itxi gabe dago.

FLASHBACK AMAIERA

93 EXT. GARIZMENDI BERRI - GAUA 93

Garizmendi Berriko argietan, bai etxea eta inguruko hesia ilunpean uharte bat bezala nabarmentzen dira. Orduan itzaltzen dira, patioan argi ahul eta bakarti bat izan ezik.

Tarte batera auto bat dago aparkatuta, argirik gabe. Atea ireki eta Kortazar jaisten da. Etixerantz abiatzen da.

Zarama edukiontzi bat bide ertzean. Kortazar hona hurbiltzen da, estalkia altxa eta linterna bat pizten du. Barruan argitzen du, alde batera eta bestera.

Orduan edukiontzia bi eskuez oratu eta, ahalegin handiz, alborantz makurtzen du eraitsi arte. Belauniko jarririk, barrualdean arakatzen hasten da linternaren laguntzaz

94 EXT. POLIZIA-ETXEA. PATIOA - EGUNA 94

Auto eta furgoneta ofizial pare bat daude aparkatuta, eraikuntzaren aurrean. Lehenetako bateko kapotean eserita, Ezpeleta dago, plastiko-kafe bat edaten, norbaiten zain.

Kortazar agertzen da etxe barrutik. Gerturatu ahala, bizarra kendu gabe eta lo faltan dagoela nabari zaio.

Buru-keinu leun batez agurtzen du kidea eta autora sartzera doa, baina gelditzen da Ezpeletak plastikozko edalontzia botatzen duenean. Amorratuta dago emakumea.

EZPELETA

Joder, Kortazar! Zertan ari zara?!

Kortazarrek eskua irekitako atean jarraitzen du, zirrararik erakutsi gabe. Ezpeleta baretzen saiatzen da.

EZPELETA

Estanis Araia garbi dago. Ahaztu behingoz eta bila dezagun beste nonbait.

Kortazar irmo agertzen da.

KORTAZAR

Tipo hori erruduna da, berak lapurto zituen hezurak eta nik aurkituko ditut.

Ezpeletak hasperenka egiten du, etsitzen.

95

INT. GARIZMENDI. SUKALDEA - EGUNA

95

Karmenek kafesne katilu bat eskuetan dauka, gosaltzen ari da.

Nestor sukaldera sartzen da. Ez du ondo lo egin, antza: oinak herrestan dator, ilea zeharo nahasita dauka eta betzulo ilunak. Zuzen-zuzen doa kafea hartzera, hitzik esan gabe.

Karmenek ez du atzera begiratu ere egiten, katilua esku artean daukala. Mahaian pilula kaxa bat dauka.

Nestorrek bere arropa zikinean erreparatzen du, alkandora eta prakak, zoruan pilatuta, garbigailuan euren txandaren zain.

Mahaira doa. Karmenek orduan argazki bat hurbiltzen dio mahai gainetik: Ferminen zorroan aurkitutako bera da, bikiak pilotari jantzita agertzen dituen. Karmeni begiratzen dio.

KARMEN

Zure alkandoran zegoen.

Nestorrek kafea edateari ekiten dio, hausnar, begiak argazkian josita.

NESTOR

Ama, familia honetan inoiz izan al gara zoriontsuak?

Karmenek katiluaren ertz gainetik begiratzen dio, ustekabeen hartuta. Galderak zalantza ekarri diola dirudi, erantzun argirik ez balu bezala.

NESTOR

Zu eta aita... beti gaizki ikusi zaituztet elkarrekin.

Karmenek katilua mahaian laga eta segundo bat hartzen du oroitzapenak antolatu arte. Pilula kaxan erreparatzen du eta hortxe geratzen da.

KARMEN

Aitorrena pasatu zenetik... Fabrika ixteak ere ez zuen lagundu.

Nestorrek hausnar jarraitzen du. Argazkira itzultzen da.

NESTOR

Baina garai batean maite izango
zenuen.

Karmenek begiak katiluan ditu.

KARMEN

Zure aita bai.

Nestorrek asaldatuta hartzen du erantzun hau. Ondo ulertu eta kopeta iluntzen du. Begirada inora, kanpora, joaten zaio...

96

FLASHBACK: INT. HERRIKO KALEA - GAUA (1990)

96

Aitor (orain 18) bi kaleren arteko bazterrean dago, aparkatutako auto baten babesean. Hondoraino doan kaleak asteburuko animazioa erakusten du.

Aldamenean adin bertuko gazte bat du. Papelina bat ematen dio disimuluan eta besteak billete tolestu batzuk ematen dizkio.

Bezeroa badoa eta Aitor kale animaturantz abiatzen da. Barrenean tabernako bateko argiak ikusgai daude eta handik rock musika sortzen da, gortuta.

Harantz doa baina, bide erdian, bat-batean gelditzen da, beste espaloiko hormara begira. Han diana bat margotuta dago, Garizmendi Berriko estilo trakets berean, eta izen bat:

AITOR ARAIA

Ikaraldia gainditu nahian, ingurura begiratzen du: harago, hiruzpalau lagun garagardoak hartzen eta berriketan, nahiz eta berari so daudela iruditu.

Ezer ikusi ez duen plantak egiten, aurrera jarraitzen du.

97

FLASHBACK JARR.: INT. HERRIKO TABERNA - NOCHE

97

Taberna jendez gainezka dago eta musika topera. Janzkeren eta ile mozketen estiloa, oro har, garaiko herri euskaldun txiki bateko tipikoak dira.

Batzuk erdi dantzaka ari dira, gehienak edaten. Garagardo botilak nagusi dira, kalimotxoa ere tartean ageri da.

Barrako bazter batean, lau zapabosteko aldra batean, Nestor (18) dago, garagardo eskuan. Denek barreka eta elkarri kantari dihardute, musikaren erritmora.

Kontrako aldean, kaletik, Aitor sartu eta han gelditzen da, inguruan bila. Nestor antzeman eta begira geratzen zaio.

Honek bera ere ikusi eta berdin geratzen zaio, ez agurrik ez irribarrerik gabe. Aitorrek bi segundotan eusten dio, gero buelta erdia eman eta irten egiten da.

98 FLASHBACK JARR.: EXT. AUZO INGURUA. BIDEA - GAUA 98

Nestor etxera bidean doa. Ilundu du eta hotz egiten du, eskuak zamarrako poltsikoetan sartuta dauzka. Zenbait metro aurrera, Aitor bidean agertzen zaio eta zain geratzen da.

Nestor pareraino iristean gelditzen da eta galdera keinua egiten dio buruaz eta sorbaldez. Aitor betiko harropuzkeria erakusten ahalegintzen da.

AITOR

Hi, heure lagunekin hitz egin behar duk.

Nestorrek sorbaldak jasotzen ditu, ez du inongo berotasunik erakusten.

NESTOR

Eta nik zer koño egin dezaket?

Aurrera jarraitzekotan da baina Aitor traban jartzen zaio.

AITOR

Hi, nomejodas, esaiek bakean uzteko. Nik ez diat agintzen, esandakoa egiten diat.

Nestor handitu egiten da, egoeraz jabe.

NESTOR

Hara, nor da orain potrorik ez daukana?

Aitorrek adierazpena gogortzen du, sesiotan hasteko gogoari nekez eusten dio.

AITOR

Cagondios...

NESTOR

(mespretxuz)

Garizmendi Berrira pozik joan hintzen. Ba hor konpon orain!

Besterik gabe, abian jartzen da. Atzean geratzen da Aitor, ahalmenik gabe, anaiak utzi duen hutsunean begirada tinko jarrita daukala. Halaxe geratzen zaio begirada luzaroan, inguruko larreetako txitxarren zarata ozentzen den bitartean.

99 FLASHBACK JARR.: EXT. HERRIKO KALEA - GAUA (1990) 99

Hirugarrenez errepikatzen da sekuentzia hau (12. eta 62. sek)

Made in Highland

oroitzapen obsesiboaren ezaugarria areagotuz.

Ahots asaldatuak, garrasi bat nondik edo handik. Lagun aldra bat biltzen ari da zerbait ikustearren.

Beraien gorputzen artetik, harago, kale-zoru ingurune bat antzeman daiteke, galtzada-harrizko edo harlauzazko atal bat, bustirik eta nondik edo handik datorren argitan distiratsu.

Zoru hezean uzurtutako gorputz bat.

Gorputzak bizpahiru zulo odoleztatu ditu agerian, eta hilik ere, begiak guri adi-adi begira daude, adierazpenik gabe.

Aitorren aurpegia da.

Anbulantzia baten sirena guregana dator, gero eta ozenago.

100

FLASHBACK JARR.: INT. ELIZA - EGUNA

100

Isiltasun osoa. Eliza ia hutsik dago, Estanisen eta Ferminen aitaren hiletekin kontraste handia erakutsiz.

Hilkutxa bat korridorearen erdian, gurutze batekin. Horren albo banatatik, ehorztetxeko bi langile agertzen dira koadroan eta kalerantz bultzaka daramate, gurpildun euskarriaren gainean.

Honek oihartzuna harrotzen du ia hutsik dagoen elizan.

Aurreneko hilaran Karmen eta Fermin daude eta, bien erdian, Nestor.

Azken hilaran, berriz, Juanito eta Kojua eta Abel. Azken hau korridorearen erdian zain geratzen da beste biek kalerantz ospa egiten duten bitartean.

Hiru senideak pasillora irteten da eta han Karmelo batzen zaie, pulpitutik jaitsita. Karmenek, bertan, bere inguruko areto hutsa aztertzen du.

KARMEN

(Erdi berekiko)

Herri madarikatua! Txakur hilari ez zaio errespetu gutxiago erakusten.

Karmelo berarengana hurbiltzen da, kezkatuta.

KARMELO

Ez haserretu beraiekin, Karmen, baduzu nahikoa nahigabea bestela.

Karmenek begirada hiltzaile bat eskaintzen dio.

KARMEN

Beraiekin! Zu ere, denak bezalakoa!

Bizkar ematen dio. Karmelo ustekabeen harrapatzen du honek. Zer egin ezean, Fermini begiratzeko dio baina honek burua makurtzen du. Orduan, Nestorri:

Honek berriz beira bezalako begirada hotz bat itzultzen dio.

Aztoratuta, Karmelok buelta ematen du eta abian jartzen da bere kasa.

Nestorrek apaizari adi-adi begira jarraitzen du.

FLASHBACK AMAIERA

101 INT. GARIZMENDI. SUKALDEA - EGUNA (ORAIN) 101

Nestor zutitu da eta sukaldeko atetik kanpora begira dago, bere baitan bezala marmarikatzen, amorrus.

NESTOR

Bai, familia honen ezbeharrak,
lehen eta orain, beti alde
beretik.

Ezin du ikusi bere atzean Karmenen begietan pizten den isla berezia, garaipenezkoa agian.

Orduan, hil-kanpaien hotsa dator baselizara aldetik. Karmen zutitu eta aldamenera dator, bera ere aztoratuta.

102 EXT. GARIZMENDI INGURUA - EGUNA 102

Nestor eta Karmen lanroberrean doaz, azkar samar, hil-kanpaiek joka diharduten bitartean.

103 INT/EXT. LANROBERRA / BASELIZA - EGUNA 103

Lanroberra baselizara iristen da, eta gelditzen. Motorra isiltzen denean, nabarmena izango da isiltasuna: hil-kanpai hotsik ez.

Nestor eta Karmen autotik jaisten dira. Baselizako atea erabat itxita dago. Biak txundituta daude.

104 INT/EXT. LANROBERRA / GARIZMENDI. ETXAURREA - EGUNA 104

Bidean datoz etxerantz bueltan. Karmen adia galdurik doa, Nestor suminduta doa, ezpainak estutuz.

NESTOR

Ama, kanpaien kontu hau...
zerbait egin beharko dugu.

KARMEN

Esango diot apaizari.

NESTOR
(Zakar samar)
Ez naiz apaizaz ari...

Hitzak moztu egiten zaizkio Karmenen harriduraz eta ikarazko keinua ikustean. Berak ere aurrerantz begiratu eta ahoa zabal-zabalik geratzen zaio.

Lanroberrak bertan seko galgatzen du, baserrira iritsi gabe.

Hiruzpalau metro aurrerago, bide bazterreko landaretza gainean, hezurrez nahiko baldarki egindako gurutze bat dago.

Lanroberrean, Karmen eta Nestor oraindik zur eta lur daude..

NESTOR
Putasemea!

Karmenek lasaitasuna galdu gabe so egiten dio.

KARMEN
Nortaz ari zara?

Nestorrek ez du erantzuten. Buruan dabilen erantzunak ezeroso jartzen duela dirudi.

105 EXT. GARIZMENDI. ETXAURREA - EGUNA 105

Nestor baserritik tarte batean dabil urduri, hara-hona, mugikorra eskuan daukala, zenbaki bat bilatzen. Aurkitzen du, sakatu eta belarrira darama telefonoa, hezurrezko gurutzera adi-adi begira jartzen den bitartean...

106 INT. GARIZMENDI. SUKALDEA - EGUNA 106

Nestor sukaldeko armairu guztiak arakatzen ari da zerbaiten bila baina, zer den ere, ez du aurkitzen. Ate ondoan, kako batetik zaku zahar bat zintzilik dago. Erreparatu, hartu eta azkar irteten da.

107 INT. GARIZMENDI. GANBARA - EGUNA 107

Nestor ganbarara dator eskuan poltsa bete dakarrela. Ingurura begiratzen du. Han ez dago garai bateko artaburu edo patata zatien arrastorik. Koltxoi zaharra, ordea, hantxe dago, baita piper sortak gorritzen, jostailu zaharrak, bizikleta bat...

Hantxe dago, baita ere, armairu zaharra bere ispilu lizunduarekin. Honetara hurbiltzen da eta tiraderak irekitzen ditu nahikoa hutsik dagoen bat aurkitu arte. Letoizko kaxa bat dago soilik eta atera egiten du, poltsa han laga ondoren.

Kaxa komoda gainean jarri eta ireki egiten du. Argazki zahar batzuk daude, zuri-beltzez, 50-60ko hamarkadakoak gutxi gora behera, denetan neskatilea bat protagonista delarik, Karmen beharbada.

Azpian beste argazki bat, hau ere zuri-beltzez baina argiagoa, Karmenena (19-20 urte). Jaka, gona eta brusa zuriz jantzita dago, dotorezia xumeaz, eta eskuan lore sorta txiki bat dauka. Beste eskua inoren besoari eutsirik dago baina argazkia erditik tolestuta dago goitik behera eta ezin ikusi.

Destolesten duenean, ezkutaturiko erdian Fermin (24 urte) agertzen da. Trajez jantzirik eta irribarretsu dago, Karmen berriz serio... eta hilabete batzuetako haurdunaldian. Ezkontza eguneko argazkia da.

Jota dago Nestor segundo pare batean. Gero argazkiak atzera jartzera doa, eta orduan ikusten du kaxaren hondoan beste argazki bat dagoela, ahozpez. Hartu eta buelta ematen dio:

Estanis da, 22 urterekin, alkandora zuriz jantzita dago, beharbada igandeko mezatarako, eta txairotasun naturala erakusten du.

Kaxaren ipurdia osatuz, ondo tolestuta, Estanisek Karmeni eman zion musuzapia dago, agerira erakutsiz emakumeak utzi zion odol arrasto txikia.

Nestorrek bezkozko iluna jartzen du, argazkia laga baino bota egiten du, besteak ere gainera, kaxa tiraderan sartzen du ekarri duen poltsaren ondoan, eta itxi egiten du.

108 EXT. GARIZMENDI. ETXAURREA - ILUNABARRA

108

Auto bat etxe aurrean gelditzen da. Nestor bila dator, orain ere urduri, Berta autotik jaisten den bitartean. Honen jarrera serio eta kezkatuak detaileak ezagutzen dituela adierazten du.

BERTA

Eta Karmen?

NESTOR

Ortuan.

Baiezko batez onetsiz, Bertak ingurura begiratzen du.

BERTA

Eta hezurak?

Nestorregana itzultzen da, galdera airean.

109 INT. GARIZMENDI. GANBARA - ILUNABARRA

109

Ganbarako argi zurbil horixkara, plastikozko poltsa iraultzen da koltxoi zaharraren gainean, eta edukia, hezur sorta bat, barreiatzen da. Bertak harrituta begiratzen dio Nestorri.

BERTA

Nestor, nola bururatu zaizu...?
Ez zenituen ukitu behar!

NESTOR

Eta begira beste hau...

Jaramonik egin gabe, mugikorra atera eta bilaka hasten da. Azkenean, larreetan ateratako argazkietako bat erakusten dio.

NESTOR

Berberak izan daitezke?

Bertari kosta egiten zaio argazkiari arreta egitea.

BERTA

Ez... hau gorputz oso bat da. Aldaka hori, gainera, emakumezkoa da itxuraz. Baina hauek nahastuta daude...

Makurtu eta zoruko hezurretako batzuk seinalatzen ditu.

BERTA

Begira, honek gizonezkoa ematen du... beste horrek, emakumezkoa. Gainera, hauek zuri-zuri daude, ez dirudi lurpean egon direnik.

NESTOR

Joder! Baina esku berberak egin ote du? Hauek ostu eta horiek jarri?

Bertak zutik jartzen da ulertu gabe eta beldurtzen hasita. Nestorren jokabideari itxura alderraia hartzen dio.

BERTA

Nestor, hau oso arraroa da, beldurra ematen du. Ertzainei abisatu behar diezu.

Nestorrek sorbaldak jasotzen ditu, "eginak egin". Berta, berriz, hausnar dago hezurrei begira.

BERTA

Eta Karmen izan bada?

Nestor aho zabalik geratzen da. Edo, agian, berak ere susmo bera izan du baina ez du onartu nahi.

NESTOR

Nojodas, Berta! Nirekin zegoen baselizan!

Amorratzen hasi da baina Berta oraingoan ez da beldurtzen.

BERTA

Oiloena gertatu zenean, non zegoen?

Nestorrek erantzuteari uko egiten dio, temati.

BERTA

Tira, eta zer egingo duzu?

Nestorrek inora begiratu eta sorbaldak jasotzen ditu. Berta kokoteraino dago.

BERTA

Ondo, ba, hor konpon! Ez dut honekin zerikusirik nahi!

Badoa, bat-batean. Nestorri kosta egiten zaio erreakzionatzea, gero atzetik doa.

NESTOR

Ez, Berta...!

110

INT. GARIZMENDI. SUKALDEA - ILUNABARRA

110

Berta sukaldera agertzen da kalera bidean. Karmen ekonomikaren aurrean dago, txikitutako barazki sorta bat lapiko batera botatzen. Poztu egiten da Berta ikustean.

KARMEN

Berta!

Berta bertan gelditzen da, irribarre bortxatu batez erantzuten du.

KARMEN

Bazoaz?

Errudun sentitzen da Berta eta musu pare bat ematen dio, gelditzeko asmorik gabe, hala ere.

BERTA

Karmen, zer moduz? Banoa, bai, berandu nabil...

KARMEN

Neska, nora joango zara eguraldi honekin?

Kanporantz seinalatzen du: euria gogotik ari du. Bertak pauso bat egin du harantz eta ezbaian geratzen da.

KARMEN

Lotara geratuko zara.

Bertak bati eta gero besteari begiratzen die, ezeroso. Ez daki nola ihes egin baina ez du amore eman nahi.

BERTA

(Ezeroso)

Eskertuta, Karmen, baina ezin, benetan... Hurrengora arte.

Irten egiten da.

Made in Highland

111 **EXT. GARIZMENDI - ILUNABARRA**

111

Berta etxe bazterrean bertan geratzen da, aurrera pausorik egiteko gai ez dela, euri zaparradaren gogorragatik. Atzera begiratzen du:

Kristalaren beste aldetik, Karmen eta Nestor so ari zaizkio. Ez!

Poltsatik autoko giltza atera, poltsa buruan jarri eta euripean barneratzen da, arineketan. Autorantz hurbildu eta giltzari sakatzen dio. Autoa **klask** batez deslokatzen da.

NESTOR (O.S.)

Berta!

Asaldatuta gelditzen da Berta autora heldu den unean. Nestor korrika dator pareraino iritsi arte. Blai-blai eginda dator baina ez zaio axola.

NESTOR

Baserrian bizitzen geratuko naiz.

BERTA

Hara...

Ustekabean hartuta dago Berta eta, une batez, ez daki zer esan.

BERTA

Zorte ona, ba.

Autora igo eta ziztuan abiatzen da. Hantxe geratzen da Nestor, burutik behera blaituta baina axolagabe.

Motorraren hotsa urruntzen den heinean, euriarenak gero eta lehtasun gehiago hartzen du.

112 **INT: GARIZMENDI. LOGELA - GAUA**

112

Ohea hutsik, maindireak baztertuta. Komunetik bonbako zarata dator.

Nestor logelara sartzen da oinak narras ekarriz. Ohera hurbildu eta, bertan eserita, halaxe geratzen da. Logurarik ez. Hasperenka egiten du eta, azkenik, maindireak altxa eta ohe barrura irristatzen da.

Une horretan, etxe barrutik hausten den kristal baten zarata dator, eta horrekin batera minezko garrasi bat.

NESTOR

Ama?

Kezkak eraginda, ohetik jauzi eta atetik doa lasterka.

113 INT/EXT. GARIZMENDI. SUKALDEA/ETXAURREA - GAUA 113

Nestor arrapaladan sartzen da sukaldera. Hantxe dago Karmen, bataz jantzirik eta geldi-geldirik, kanporantz begira, elbarritu antzean. Beraren oinpetan edalontzi hautsi baten puskak.

NESTOR

Ama! Zer duzu, ba?!

Hurbiltzen da eta eskua hartzen dio: zauri bat egin du. Baina Karmenek kanporantz jarraitzen du lauso artean bezala, lo-ibiltari bat bailitzan. Berak ere hara begiratu eta ikaraldia hartzen du:

DETALLEA: Sukaldeko atletik kanpora, etxe aurrean, busti-bustirik dagoen zoruan eta etxeko argi horixkazko eraztun baten erdian, hil-koroa handi bat dago.

Nestorren begiak gogortu egiten dira. Gainez egin du barrutik.

114 INT/EXT. GARIZMENDI. SUKALDEA/ETXAURREA - GAUA 114

MINUTU GUTXI GEROAGO

Nestor badoa etxetik pauso sendoz. Etxeko argi horixkek esku krispatuan daraman eskopetari distirak ateratzen dizkiote.

Karmen leihoan zehar begira dago. Buelta ematen du, aurpegia maskara bat bihurtuta, eta harraskara hurbiltzen da.

Txorrota ireki eta eskuko odola garbitzen hasten da. Bere atzean **klik** bat entzuten da.

Buelta ematen du mahairantz...

115 FLASHBACK: INT. GARIZMENDI. SUKALDEA - GAUA (ORAIN ASTE GUTXI) 115

Aulkian orain Fermin dago eserita. Zorua apur bat lohituta eta bustita bere oinen inguruan, lokaztutako boten eraginez. Mahaian, koñak botila bat.

Eskopetako kanoia hortz artean jarrita dauka, atzamarra katuan. Begiak gorri eta mozkortuta, aurpegia izerditan.

KARMEN

Fermin! Kendu hori derrepentean!

Karmen sukaldera sartu da. Ferminek begiak baino ez ditu mugitzen, kasurik egin gabe. Lehen izualdia gaundituta, Karmen errietan ari zaio.

KARMEN

Ez egin astakeriarik! Nahikoa sufritu du semeak!

Fermini iritsi egin zaizkio azken hitzak. Karmeni so, eskopeta ahotik kentzen du apur bat.

FERMIN

Semeak? Noren semeak?

Hortz artean esan du, urte askotako amorrua kolpez askatu nahian. Karmenek mespretxuz begiratzen dio.

KARMEN

Prakanasaia halakoa! Beti anaiaren beldur izan zara!

Ferminnek Karmenengana itzultzen du eskopeta. Hau ez du mehatxuak inondik inora beldurtzen.

KARMEN

Egin tiro, ba, potroak badituzu!

Segundo batez hantxe geratzen dira biak, tentsioa airean, tiro egingo ote duen. Orduan Fermin negarrez hasten da eta, geldiro, eskopeta mahaian lagatzen du.

Karmenek, tentsioa baretuta, baiezkoa egiten du isilean, "banekien nik ezetz", eta alde egitekotan dago.

FERMIN (O.S.)

Txakur bat bezala hil zuten...

Buru-makur jarraitzen du Ferminnek, zotin artean mintzo.

FERMIN

... Aitor gaixoa... Herrian inork ez zion negar egin. Ezta ere zelaian aurkitu dudanari...

Burua altxatzen du eta malkoz bustitako begiez so egiten dio.

FERMIN

Niri berdin egingo ote didate?

KARMEN

(Mespretxuz)

Bake santua emango duzu behintzat.

Ferminen begiak gogortu egiten dira. Tupustean, zutitu eta eskopeta hartzen du. Karmen ez dago batere zirraratuta.

KARMEN

Eta bota horiek garbitu sukaldera sartzeko.

Ferminnek, txundituta, oinetara begiratzen du: bota lokaztuen detailea.

FLASHBACK AMAIERA

116 EXT. GARIZMENDI BERRI/KORTAZARREN AUTOA - GAUA (ORAIN) 116

Kortazar lehengo bazterrean aparkatuta dago. Ondoko eserlekuan termo bat dauka, bokata baten hondarrak ere bai. Lo-kaikuak egiten dabil, erne jarraitzeko ahaleginetan. Egunetako bizarra darama.

Halako batean, zerbaitek pizten dio arreta: Garizmendi aldetik norbait agertu da ilunpetatik. Gerturatu ahala, Nestor ezagutzen du. Hau, atetzarrera inguratu gabe, bidetik irten eta txaleteko albo batera desbideratzen da.

Begi bistatik desagertu baino lehen, eskuan dakarren zerbaitek distira egiten du kaleko argi eskasetan. Kortazar aurrerantz makurtzen da objektua ezagutzeko:

Eskopeta bat.

Alarma gorria pizten zaio eta autotik irteten da arineketan.

117 INT. GARIZMENDI BERRI. LOGELA - GAUA 117

Estanis lotan dago. Nonbaitetik kristal hautsizko zarata dator eta iratzarri egiten du. Adi jartzen da, kezka. Beste zarata leun bat entzuten duenean, ohetik salto egiten du.

118 INT. GARIZMENDI BERRI. EGONGELA - GAUA 118

Estanis logelatik irteten da, janzteko astia izan du nahiz eta ortozik etorri. Leihora hurbildu eta ireki egiten du kanporantz so egiteko asmoz.

Aurkako aldean, egongelako atea bortizki zabaltzen da eta Nestor sartzen da oldarka, su bizian, dagoeneko kargatuta daukan eskopeta krak batez ixten duelarik. Estanis, bitarte labur horretan, gela erdira hurbildu da.

NESTOR

Hil behar haut, kabroi hori!

Destatu egiten dio. Estanisek, bere ikaraldian, eskuak altxatzen ditu instintiboki eta, atzeraka egitean, sofarekin topo egin eta hantxe eserita jausten da. Ez da ezer esateko gai.

Nestorrek atzamarra kakoaren inguruan irristatzen du. Sakatzera doa.

KORTAZAR (O.S.)

Ez!

Bat-batean, esku bat sartzen da koadroan eta eskopetari eusten dio. Tiroak egundoko zarata ateratzen du, baina desbideratu eta leihoko kristala txikitzen du.

Estanisek bi besoak jaso ditu babesteko keinuan. Kortazarrek eskopetari tenk egiten dio indarrez eta eskuetatik kentzen dio.

NESTOR
 (Ustekabea hartuta)
 Zer...? (Buelatu eta nor den
 ikustean) Zertan ostia habil,
 ekarri hori!

Eskopeta hartzera doa baina Kortazarrek eskua saman ipintzen
 dio, geldiaraziz.

KORTAZAR
 Hi burutik jota al hago? Heure
 bizitza izorratu nahi?

NESTOR
 (Estanisi seinalatzen)
 Nahikoa izorratu zidak putaseme
 honek!

KORTAZAR
 Hoa etxera, Araia, heure onerako.

NESTOR
 Hil behar diat! Bestela berak gu
 garbituko gaitik!

ESTANIS (O.S.)
 Zer ostia diok?!

Estanis tentetu egin da sofan. Zurbil-zurbil dago baina bere
 betiko jarrera berreskuratzen ari da.

ESTANIS
 Zergatik egingo nuen halakorik?

NESTOR
 Kabroia! Aitor ere hiltzera
 bidali zenuen!

Buelta ematen du, Kortazarri eskopeta eskuetatik kentzeko
 asmoz.

NESTOR
 Eman hori!

Kortazarrek ez dio uzten eta, esku libreaz eskumuturretik
 eutsirik, tiraka egiten dio handik ateratzeko asmoz.

KORTAZAR
 Nahikoa, joder! Goazemak hemendik
 oraintxe!

NESTOR
 (Suminduta)
 Kagüendios!

Besterik gabe, Estanisen gainera saltatu eta aurpegi-aurpegian ukabilkada gogorra ematen dio. Honek, atx egin eta besoa jasotzen du babesteko.

Nestor gainean jartzen zaio eta eztarriari eusten dio bi eskuez.

NESTOR

Putasemea... hilko haut...

Estanis askatzen saiatzen da ito-itoka, baina Nestorri honek erokeriazko indarra ematen dio.

Kortazarren erreakzioa berandu baina badator, eskopeta zoruan laga eta banatzera hurbiltzen da.

KORTAZAR

Araia, geldi!

Estanis Nestorren besoak joka ari da, baina etsi-etsian eta eraginik gabe. Aurpegia gorrituta dauka eta begiak beldurrez. Izututa, Kortazar Nestorri beso batetik tiraka hasten zaio.

KORTAZAR

Askatu! Osti, Araia, askatzeko!!

Orroka, Nestorrek esku bat askatzen du ustekabeen eta eskugainaz Kortazar sudur-ahoan jotzen du. Hau, minez garrasika, atzekara jausten da, sudurretik odola dariola.

Estanis Nestorren beste besotik askatu nahian dabil. Honek, begiak eromenez gorrituta, urrumaka, berriro eusten dio eztarriari eta orain erpuzuz zintzurari sakatuz.

Akabatuta sentitzen da Estanis, ostikoka hasten da airetara, alferrik.

Zoruan, Kortazarrek odola eskuaz garbitzen du. Handik ikusita, Estanisen oinak gelditzen hasten dira.

KORTAZAR

Joder, ez!

Eskopeta eskutik gertu dauka. Tentsioak eramanda, hartu eta zutik jartzen da.

KORTAZAR

Askatu!

Honek begiratu ere ez, berean jarraitzen du, orroka. Estanisen eskuak Nestorrenetatik askatzen dira, hilda bezala.

KORTAZAR

(Gero eta tentsioagoan)

Askatu!!

Estanisen oinak gero eta gutxiago mugitzen dira. Nestorrek ez du askatzen. Kortazarrek aurrera pauso egin eta kulata-kolpea ematen dio Nestorri buruko alboan.

Hau urruma gor batez albo batera jausten da, sofaren ertzean jiratu eta aldi berean irristatuz, zorura jausten da.

Kortazarrek eskopeta zorura askatzen du eta Estanisengana oldartzen da, kezka larrian. Agerian da gerrian, apur bat gibel aldera, bere zorroan daraman pistola.

Eskutadatxo pare bat ematen dio aurpegian, Estanis konorterik gabe antzean dago baina arnasestuka ari da.

Zoruan, Nestorrek berpiztu eta burua altxatzen du. Ahoa odoletan dauka baina ez du nabaritzen, eromen bizian dago.

Ahabetik urrumaka, zoruan bihurritu eta eskopetaren bila doa erdi herrestan, erdi lau hankaz. Eskopetari eutsi, bertan esertzen da, eskopeta altzoan jarri eta katua jasotzen du.

Kortazarrek bizkar gainetik begiratzen du. Hil ala bizi, buelta ematen du pistola gibeletik ateratzearekin batera.

Nestor eskopeta altxatzen ari da.

Kortazarrek segurtagailua askatzen du.

Nestor destatzera doa.

Kortazarrek tiro egiten du, behin. Nestorrek bular erdian jasotzen du eta atzekara erortzen da, eskopeta askatu eta hau altzoan geratzen zaio.

Kortazar egindakoaz konturatzen hasten da. Hurbildu, ondoan belaunikatu eta pistola alboan jartzen du. Nestor itolarrian ari da, hil-zorian, bularreko zuloatik odola borborka ateratzen zaio eta Kortazar jarria ixten saiatzen da bi eskuez, etsi-etsian.

KORTAZAR

Joder, ez... Araia... Araia!

Ahalegin ustela, odola atzamarretatik isurtzen zaio eta Nestorrek ez du erreakzionatzen. Une horretan, Estanisen eztulak bere senera ekartzen du:

Estanis arnasestuka ari da, ito-itoka, sofa gainean alborra jartzen den bitartean.

ESTANIS

Dioss...

KORTAZAR

Anbulantzia! Eskatu ambulanzia, joder!

Nestorregana bihurtzen da. Honen begiak erdi zabalik eta galdurik daude, bizi seinalerik ez. Horroreak eraginda, odoleztatutako eskuak kendu eta zutik jartzen da astiro, nekez.

Azkenik, gelatik irteten da. Estanis hantxe etzanda geratzen da, burua ezkutaturik.

119 EXT. GARIZMENDI BERRI. LORATEGIA - GAUA 119

Kortazarrek patioa zeharkatzen du atetzarrerantz, begirada galdurik, jazotakoak oso eraginda. Eskuak odolez dauzka.

Atetzarrera iritsi eta une batez bueltatzen da etxerantz. Horrorea bera da.

120 INT. GARIZMENDI. SUKALDEA - GAUA 120

Karmen mahai ondoan eserita dago, kanporako ateari begira. Beti bezala espresiorik gabe baina gorputza tente, barneko ernetasunaren seinale bakarra. Halakoan, arasako erlojura begiratzen du:

3:07

Zutitu eta leihora doa. Kanpora begiratu eta kezka izpi bat islatzen zaio.

121 FLASHBACK: INT. INSTITUTU FORENTSEA - EGUNA (1990) 121

Karmenen aurpegia (orain 38) estutasunaren isla da.

Gela erdian dagoen ohe bakarrean gorpu bat, orain estalita. Inguruan morge bateko nitxo tipikoak, autopsietarako mahai bat...

Bataz jantziriko mediku batek gorpuaren estalkia baztertzen du Karmenen aurrean. Bigarren planoan Nestor (18), elbarrituta, eta GUARDIA ZIBIL bat.

Hildakoa Aitor da. Argizarizko azala du, betzulo beltzak eta bizpahiru tiroren zuloak agerian, ubelduta, bularrean eta eztarrian. Karmenen aurpegia horrore eta minetan apurtzen da, begirada baztertu eta eskuetan ezkututzen du.

KARMEN

Aitor!

GUARDIA ZIBILA

Lo siento mucho, señora...

Karmen berarengana itzultzen da. Begiak malkoz beterik badauzka ere, minaren gainetik gorrotoa islatzen dute.

122 FLASHBACK JARR.: INT. GARIZMENDI. OILATEGIA - EGUNA (1990) 122

Fermin (orain 43 urte) garaua zoruan xahutzen dabil saski batetik eskutadak hartu ahala, solte dabiltzan oilo zaratatsuen artean.

Atea zabaltzen da bortizki eta horman jotzen danbada gogor batez. Karmen sartzen da su bizian eta Ferminengana dator artez.

KARMEN
Putasemeak...!

Saskia eskuetatik erortzen zaio Fermini, hain izualdi handia hartu du. Karmenen begiek izutu egiten dute.

FERMIN
Karmen... arren!

Ferminengana oldartzen da eta aurpegian atzamarka hasten zaio, eta ezin duenean, joka.

KARMEN
Madarikatuak, semea hil didazue...!

FERMIN
Nik ez, Estanisek!

NESTOR (O.S.)
Ama!

Nestor atetik agertu da eta arineketan dator.

NESTOR
Ama, mesedez!

Amari besotik eusten dio, ez oso gogotsu. Baina Karmen bere senera dator eta gelditzen da, arnasestuka, Fermini gorroto bizian begira.

KARMEN
Bizia hondatu didazue! Bai Estanisek, baita zuk eta Garizmendik. Ordaina ekarriko dizue! Zenbat kosta ere, ordaina ekarriko dizue!

Elbarrituta daude bi gizonak. Karmen badoa, ez ordea batere arinduta.

FLASHBACK AMAIERA

123

INT. GARIZMENDI BERRI - GAUA

123

Ertzaintza Zientifikako bi agentek dihardute inguruan, peto, kapela eta latexezko eskularruekin:

Bat gorpuaren argazkiak ateratzen dabil reflex batekin, gero sofarenak, zoruarenak...

Bestea odol laginak hartzen kotoi-zotzekin, gero poltsatxo hermetiko batean gordetzen dituenak.

Biak gelditu eta baztertu egiten dira bi zibil, EPAILEA eta IDAZKARIA, sartu eta gorpuaren aurrean gelditzen direnean.

Hauen atzetik sartzen eta ate parean gelditzen dira Ezpeleta, hau ere peto, kapela eta eskularruekin, eta Kortazar, burumakur eta isilik, eskuak garbituta baina bularrean arrasto gorri bat daramana.

Ezpeleta begira geratzen da.

Urrun, auto baten motorra entzuten da.

124 INT. GARIZMENDI. SUKALDEA - EGUNSENTIA 124

Karmenek zutik dirau leiho aurrean. Ordutan halaxe egon dela esan liteke. Atzean, arasa gainean, erlojuak **7:11** adierazten du.

Autoaren motorra gero eta gertuago entzuten da, eta bakarrik orduan irteten da bere baitatik.

125 EXT. GARIZMENDI. ETXAURREA - EGUNSENTIA 125

Karmen etxetik irteten da. ERTZAINZAREN autoa etxaurrean gelditzen da. Autotik Ezpeleta jaisten da, eta beraren benazko adierazpenak ez du ezer onik iragartzen.

Karmenek izu-izuan begiratzen dio.

126 EXT. KANPOSANTUA. NESTORREN HILOBIA - EGUNA 126

Nestorren aurpegia plastikoz estalitako argazki batean. Argazkia kanposantuko hilarri batean jarrita dago, honako inskripzioaren azpian:

NÉSTOR ARAIA

(1972 - 2004)

Norbaitek lore-sorta bat ipintzen du hilarriaren oinetan. Karmen. Atzera itzuli eta Abelengana itzultzen da. Hau bi pauso atzerago dago, laneko buzoaz jantzirik.

Tarte bat harago beraren orgatila dago, lanerako zamatuta: eskuarea, pala, zaku erdi lur.

Karmen Abelen alboan kokatzen da, baina hilarrira begira.

KARMEN

Orduan, egingo al duzu?

Abel ezeroso jartzen da.

ABEL

Asko eskatu didazu jadanik.

Karmen berarengana bueltatzen da eta adi-adi begiratzen dio, bat-bateko tristeziatz.

KARMEN

Zuk ere bertan behera utziko nauzu, Abel?

ABEL

(Minduta)

Ez! (Ezbaia) Baina prometatu azkena izango dela.

KARMEN

Jadanik prometatu dizut.

ABEL

Eta ondoren elkarrekin egongo garela?

Karmen txundituta geratzen da. Ez zuen halakorik espero.

KARMEN

Elkarrekin...?

Abelen irribarrean baiezko erantzuna dator. Karmenek, lehen gozotasun arrastorik erakutsi badu, orain aurpegia apur bat zorrozten zaio eta inora begiratzen du. Etsitu antzean.

KARMEN

Dena kendu didate, Abel. Ez naiz inor maitatzeko gauza.

Besterik gabe, buelta eman eta badoa. Abelek atsekabetuta begiratzen dio, zirkinik egin gabe, hantxe bakar-bakarrik.

127

FLASHBACK: INT. GARIZMENDI BERRI. EGONGELA - GAUA (1990)

127

Aitor edalontziak batzen ari da eta erretilu batean biltzen. Festa bat izan da eta gonbidatu gehienak joan dira, bakarrik Abel hari begira dago sofán eserita, azken tragoa hartzen.

Logelako atean Estanisek agertzen du burua. Oso serio dago.

ESTANIS

Aitor...

Hara joateko keinua egiten dio. Aitorrek eskuan daukan basoa laga eta hara doa. Abelek jakinguraz begiratzen dio.

128

FLASHBACK JARR.: INT. GARIZMENDI BERRI. LOGELA - GAUA (1990)

128

Estanis albo batean geratzen da Aitor sartzen denean. Ohean gorputz argal bat dago, ahozpez eta biluzik.

Ohea nahasita dago, maindireak albo batera erorita, mesanotxea ere zoruan eta honetako lanpara ere bai, bonbilla txikituta egoteaz gain.

Gelako bazterrean, tipo Biboteduna janzten ari da. Egundoko kolokoia dauka, alkandora lotzeko gai ere ez da. Estanis berarengana hurbiltzen da, aulkian dagoen jaka hartu eta tipoa aterantz eramaten du ukondotik eutsirik. Tipoak gorrituta ditu begiak, zotinka doa.

ESTANIS

Ni se te ocurra volver por aquí.

Aitorrek oheko gorputzean du arreta. Harantz hurbiltzen denean, neska bat dela ikusten du. Ondoan makurtu eta aurpegia ikusten du:

Adela da. Begiak zabal-zabalik ditu baina bizirik gabe, ahoa zabalik azken arnasetan hil bailitzan, eta azala horixka. Aurpegi albo ubelduta dauka, besoan eta bizkarrean ere ubeldurak ageri ditu jipoi bortitz bat jaso duen seinale, eta bai aurpegian eta hortz-ezpainetan odol arrasto nabarmenak ditu.

Aitorrek atzera egiten du, izututa.

AITOR

Joder!

ESTANIS

Putaseme biziotsua halakoa!
Oraingoan ederki joan zaiok
eskua!

Aitorrek ez dio entzuten, goragaleka hasi da.

ESTANIS

Hi, konpondu egin behar diagu.

Aitorrek bizkar egiten dio eta oka hasten da, ito larrian. Estanisek begiratu, gero hasperenka egin eta, aterantz hurbilduta, handik burua agertzen du.

ESTANIS

Hi, Abel!

Ohe aldera itzultzen da. Segidan dator Abel eta Estanisen pareraino heltzen da. Gorpua ikustean, ahoa zabaldu baina hitzak traban geratzen zaizkio.

ESTANIS

(Buru-keinu batez)

Biok, hartu gorpua eta kendu gaineratik. Ez diat jakin nahi nola, baina ez dadila inoiz agertu.

Abel ez da zirraraz suspertu. Aitor tentetu egiten da, muturra lehortzen, begiak gorrituta dituela. Estanis, berriz, lasai dago, ez du kontrola inondik inora galdu.

FLASHBACK AMAIERA

129 EXT. GARIZMENDI BERRI. LORATEGIA - EGUNSENTIA 129

Begi itxiak, ezpain lehortuak. Igerilekuaren aurrean dago Estanis, aulki batean erdi etzanda Beso bat zintzilik dauka, ahaztuta. Lepo inguruan ubeldura, jadanik berdexka. Begirada igerilekuaren hondoan galduta dauka:

Hemen, lehen ikusi dugun orbel eta lohikeria bera.

Hondoratuta dagoela dirudi Estanis, beti izan denaren itzala ere ez du ematen.

Norbait sartzen da kaletik, zarata leuna ateratzen du metalezko atetzarra bultzatzean.

Estanisek entzun eta hara begiratzen du, baina egun berriaren argi izpiek begietan jotzen dute, keinuka egitera behartuz.

Urrats leun batzuk hurbilduz. Estanisek oin pareta baino ez du ikusten, oraindik keinuka eta erdi itsututa. Oinen jabea berarengana makurtzen da eta azkenean ikusten dio aurpegia. Guk ez ordea.

Estanisek kolpe latza jasotzen du aurpegiaren alboan eta koadrotik desagertzen da.

130 INT. GARIZMENDI. GANBARA - EGUNSENTIA 130

Estanisen gorputza aulki batean jarri baino jausi egiten da. Konorterik gabe dago oraindik baina astinaldiak bere senera ekartzen du astiro.

Abelek gorputz osoa soka batez lotzen dion bitartean, albo batean Karmen dago begira, aurpegian eromena disimulurik gabe agertuz.

Estanisek begiak irekitzen ditu eta Karmen antzeman. Irribarrea saiatu baina ezin du. Karmenek hurbildu eta eskua sorbaldan jartzen dio, berebiziko gozotasunaz.

KARMEN

Hemen hasi zen gure artekoa,
gogoratzen?

Estanisek baiezko ahula egiten du.

ESTANIS

Ez dut, ba, gogoratuko.

KARMEN

Ba, ondo dago hemen amaitzea.

Estanisek burua altxatzen du berarengana. Karmenek adi-adi eusten dio. Gozotasun horren ordez, Estanisek ondo ezagutzen duen zerbait du begietan: berak mespretxatu zueneko, kanposantuko liskarreko gorroto bizi hura.

Estanisek orduan ulermena islatzen du, are etsipena ere, baina beldurrik ez.

KARMEN
Goazen, Abel.

Abel poto bat disolbatzaile isurtzen ari da inguruan. Karmenen agindura, gelditu eta eskailerarantz doa, Karmenek segituta.

Eskaileraren buruan, Karmen berriro bihurtzen da Estanisengana. Begiraden gurutzaketa arin bat. Karmen eskaileretan behera galtzen da.

131

EXT. GARIZMENDI. ETXAURREA - EGUNSENTIA

131

Abel etxetik irteten da. Karmen atzetik irten eta bazterrean geratzen da. Abelek disolbatzaile gehiago isurtzen du, atetik barrurantz zipriztinduz, potoa hustu arte. Hau ere barrura bota eta kaxa bat pospolo ateratzen du.

Karmen adierazpenik gabe dago. Koadrotik kanpo pospolo baten harraska hotsa. Segidan, airea erretzearen leherketa arin bat. Karmenen aurpegia garren isla dantzariekin pizten da, txinparten hotsarekin batera.

Abelek pospolo kaxa botatzen du. Barruko garrek ilara bat osatzen dute ate-ateraino eta hedatzen ari da azkar.

Handik urruntzen da Abel, baina Karmen ez datorrela konturatzen da.

ABEL
Goazen, Karmen.

Honek ez du kasurik egiten, etxera bihurtu eta harantz hurbiltzen da berriro.

ABEL
Nora zoaz?

Karmen gelditu eta ezbaian dago une batez.

KARMEN
Hezurren bakearen bila, Abel.

Ez du zirrararik. Atzean, sua handitzen ari da eta denaz jabetu da, emakumearen inguruan isla espektralak jaurtikiz.

Azkenik, irribarre ahul bat erakusten dio Abeli eta etxerantz jarraitzen du, geldiro, eskailerak premiarik gabe igotzen, eskua zementuzko barandan jarriz.

Atera iristean, azken begirada triste bat bidaltzen dio agur moduan. Garren muga zeharkatu eta etxe barrura sartzen da atzera begiratu gabe.

Abel egundoko tristeziak jota dago, baina ulermena ere badu, sutearen islek piztutako aurpegian. Azkenik buelta eman eta badoa, goraka doan erretzearen zarata lagun duela.

Garizmendi sutan dago, garrak leihoetatik agertzen hasi dira. Abel etxaurretik harago doa jadanik, auzoko errepidean barrena.

Teilatutik lurrera erretzen ari da baserria. Ikuskizun hipnotikoa da, denbora zabaldu egiten dela dirudi, garren karraskadaren erritmora.

Bat-batean, suaren zarataren gainetik, baselizako kanpaien jotzea entzuten da.

132 EXT. BASELIZA - EGUNSENTIA

132

Kanpai-hotsak jarraitzen du.

Baselizako atea erdi zabalik dago. Distantzian, Garizmendi aldera, ke beltzeko zutabe lodi bat altxatzen da zerurantz.

Kanpaien hotsa goraka datorren sirena batenarekin nahasten da. Segidan beste bat, eta hirugarren bat entzuten dira.

Suhiltzaileen bi ibilgailu igarotzen dira abiadura bizian, sirenak bete-betean. Gertu atzetik, auto bat bi lagunekin. Gidaria Ezpeleta da, ERTZAIN KIDE batekin dator.

Denak desagertzen dira Garizmendirantz. Segundo batzuk. Motor zarata berri bat gerturatzen da.

Auto pribatu bat ziztuan dator. Gidariak, Kortazarrek, baselizako atea zabalik dagoela erreparatzen du, gelditu gabe.

133 EXT. GARIZMENDI. - EGUNSENTIA

133

Inguruko mendien gerizpean, Garizmendi suak janda dago teilatutik oinarrietaraino. Suhiltzaileak tutu malguak hedatzen ari dira premia bizian, hauetako bat hasi da ura etxerantz jaurtitzen.

Ezpeletak eta kideak errepidearen hasieran aparkatu dute eta Ertzaintzaren zinta bat hedatzen ari dira.

Garren, uraren eta suhiltzaileen hotsen zarata gainetik, distantzian baselizako kanpaiek joka dihardute, astiro.

Orduan Kortazarren autoa heltzen da eta zintaren aurre-aurrean gelditzen. Ezpeletak nahigabetuta begiratzen dio, eskuak hazta eginda, autotik jaitsi eta hurbiltzen denean.

EZPELETA

Kortazar, zertan zabilta hemen?
Urrun mantentzeko agindu nizun.

Bidea seinalatzen dio, irmo. Hitz egin bitartean, baselizako kanpaiak bat-batean isildu dira. Kortazar aitzakiaren bat ematekotan dago baina erdian geratzen zaio.

Atzera bihurtzen da, harrituta, urrutira begira: isiltasuna baselizan. Berriro begiratzen dio.

KORTAZAR

Nork dauka baselizako giltza?

Ezpeletak mugimendua jarraitu dio, nahi gabe, eta galderak bidea irekitzen du bere ulermenean.

134 EXT. KANPOSANTUA - EGUNA

134

Ezpeleta eta beste ertzaina kanposantuan barrena datoz. Abel harresiko bazter batean dabil eskuare batez belar gaiztoak altxatzen.

Ertzainak ikustean, lanabesa askatzen du eta beraien bila irteten da, irribarre triste bat erakutsiz.

Kortazar tarte bat atzerago agertzen da. Segika etorri dela konturatu bada, Ezpeletak ez dio jaramonik egiten.

Bi ertzainak Abelen aurrera iristen dira eta beso banatik eusten diote. Berak ez du indarrik egiten.

ABEL

(penaz)

Asko maite nuen. Baina orain badu hezurren bakea. (Atzera seinalatuz) Gaixo horrek bezala.

EZPELETA

(Erne)

Nork?

Abel atzerantz bihurtzen da eta biek askatzen dute, ustekabean hartuta. Lurreko tontor leun batera seinalatzen du.

ABEL

Adelak.

KORTAZAR

Adela!

Hara hurbiltzen da, dardarka, begiak tontorrean tinko. Inork ez du oztopatzen, hara iritsi eta bertan gelditzen da.

Sorbaldak astintzen hasten zaizkio zotin isilen eraginez. Ezpeletak, hunkituta, inguratu eta eskua lepoan jartzen dio.

Trumoi baten zarata.

Garizmendiko hondamendiak. Egun ilun, hodeitsu eta isila. Sarrerara zeramaten harrizko eskailerek, beste ezerk ez du zutik iraun. Honetaz harago, horma zatiak, egur erre eta belztua nonahi.

Beste trumoi batek hausten du barealdia.

Krakada bat entzuten da koadrotik kanpo, egur lehorra haustearena.

Karmelo apaiza da, nahiz eta gaur ez jantzi inongo arropa beltz edo ilunik. Erreketa eremuaren inguruko Ertzaintzaren zinta gainditu eta hantxe gelditzen da.

Gero, harrizko eskaileretatik igotzen da, astiro. Handik goitik so egiten do ingurura, nahigabetuta, drama honetan hein bateko erantzukizuna izango balu bezala. Segundo pare bat geldirik dago.

Beste trumoi bat, gertuago. Euri tantoka hasten du beraren eskuaren inguruan. Tanta lodiak dira, apurka, sarritzen joango direnak euri bihurtu arte.

Karmelo bere senera dator. Atzera bihurtzekotan dago, baina zerbaitek bere arreta erakartzen du. Orduan eskailerak jaisten ditu.

DETALLEA: ohol erre baten azpitik begi bistara sortzen da bikien gelako gurutzea. Egurra erdi erreta dago, irudi metalezkoa zikin baina osorik.

Inguratu eta hartu egiten du. Euria areagotzen doa.

Handik urruntzen da gurutzea babestuz. Atzean, Garizmendi izandako hondamendiak bakarrik geratzen dira euri sarriaren pean.

Gero eta urruntzenago ari da Karmelo, gero eta irudi txikiagoa, azkenean puntu bat baino ez zeruertzean desagertzen den arte.

BELTZERA MOZTEN DU. Beltzean, euriaren zaratsak indarrean jarraitzen du.

FADE OUT: